

TOKIKOM

2024ko urtarrila | 243. zenbakia

aitor!

txorierriko aldizkaria



Iñigo Zarate

Datu-analista



SUIT DELUX

Showroom Sales 2024

Otsailaren 29ra arte



Derio

Derioko Seminarioa

Tel: 944 545 147



Leioa

Iparragirre etorb., 80

Tel: 944 316 516



Bilbao

Ledesma, 32

Tel: 944 145 875

suitdelux.es

-  4 Iritziak
-  5 Gutunak
-  6 Laburrak
-  10 Inauteriak
-  12 Gurean izan da... Semente Eskolak
-  14 Gaztea eta... Danel Arteaga, abeslaria
-  16 Menditik patxadaz... Trenbide zaharrak
-  18 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  20 Gai nagusia... Iñigo Zarate, datu-analista
-  25 Txorierri ezagutu
-  26 Ekonomia
-  32 Emaus Fundazioa
-  33 Herbarioa... Biri-belarra
-  34 Psikologia... Ursula Tomas Almargo
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa
-  39 Agenda



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Altzora, Darabilgu eta Tximintx komunitatea) 944 523 447 / 688 864 135 / 747 406 561 aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Maketatzailea eta erredaktorea: Nahia Coello

Kolaboratzaileak: Iraide Juaristi, Begoña Vicario, Gaizka Peñafiel, @txiribita_mundi, Juanjo Ortiz, Joanes Camara, Ursula Tomas, Raul Bañuelos, Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxa

Zuzentzaileak: Iñaki Astorkiza eta Andoni Solorzano

Publizitatea: Amaia Lekue (688 782 642)

Banaketa: Eragin

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik

Guztiok bizi izan ditugu inguruko industria handi eta txikien itxierak, eta Txorierrri ez da salbuespena: industriak gero eta pisu gutxiago du eskualdean, eta ondorioz, industria-lanpostuek ere bai. Industriaguneen ordez teknologia-parkeak, logistika-enpresak edo zerbitzuak ipini dira, eta hori guztia guk planifikatu gabe pasatu da.

Gurean pisu handia duten industria-sektoreak eta automobilgintzak urteak daramatate krisian, eta ez da tunelaren amaieran argirik ikusten. Multinazionalak erosi dituzte inguruko enpresa handiak; etorri egin dira;

**IRAIDE JUARISTI**

LAB sindikatuaren eskualdeko arduraduna

Burujabetza industrial berreskuratu behar da

joan egin dira; eta berriak ere etorri dira. Izenari eutsi badiote ere, haietako askok ez dute lurraldearekin loturarik.

Agintariak modu progresiboan eta programatuan saldu diete gure burujabetza industrial atzerriko enpresa eta multinazionaleri, eta polika publiko eraginkorrik ezean, dena libre izan da. Ondorioz, berton zer, zertarako eta zelana ekoiztuko da? Erabakia ez dugu hartzen ez herritarrok, ez ustez ordezkatzeko gaituen administrazio publikoak, multinazionalak baizik. Politika industrial eraginkorrik gabe eta esku-hartze publikorik ez badago, ez dago burujabetzarik.

Batzuk etorri dira, eta beste batzuk joan dira. Euskal Herriko ekoizpenaren zati handi bat atzerriera eraman da, han ekoiztea merkeagoa delako. Eta joan direnak ez dira bakarrik lurraldearekin loturarik ez duten enpresak izan; Eusko Labela duten ere alde egin dute, eta askok, gainera, diru publikoa jaso ostean. Industrian

trantsizioa gertatzen ari da, eta horri helitzen ez badiogu, multinazional handiek erabakiko dute zein norabidetan izango den.

Zein industria behar dugun hausnartu behar dugu, eta zer eta zertarako ekoiztu nahi dugun erabaki. Herritarren beharrezan aiseko dituen industria behar dugu, jasangarria eta sozialki justua. Gainera, planetaren muga biosisikoak kontuan hartuta erabaki behar dugu, izan ere, lehen aipatutako trantsizioa ekosoziala ez bada, ez da bidezko trantsizioa izango. Zelana ekoizte ere pentsatu behar dugu. Burujabetza industrial berreskuratu behar da, eta ekoizpenaren eta enpresen gaineko kontrol publikoa eta parte hartzea indartu. Horretarako, finantzazioaz gain, inbertitzen den diru publikoa eta enpresa-politikak kontrolatu behar dira. Langileok eta herritarrok, bestalde, politika horien parte izan behar dugu.

Bizirautea

Bederatzi urteko haur bat bi urtez argindarrik gabe eta bakarrik bizi izan dela entzun dudanean, aititerek eta amamarekin akordatu naiz, biak zazpi urterekin hasi baitziren lanean: lehena, ikatz-zakuak kargatzen Palentziako herri batean, eta bigarrena, Begoñako familia aberats baten etxean, inude eta kozinatzen.

Zenbait belaunaldiren ostean, zaila egiten zait zazpi urteko haurrak halako lan gogorrak egiten imajinatzea, baina gogoan daukat aitite-amamek hura naturaltasun osoz kontatzen zutela: gurasoen etxean neba-arreba asko ziren

eta familiaren ekonomiari lagundu behar zioten, etxetik alde eginda bazen ere. Horrelakoa zen etxe askotan, eta gure aitite-amamak ez ziren salbuespen izan, ez.

Egun derrigorrezkoa da eskolara joatea, eta bertan antzeman zitekeen Frantziako ume horren egoera larria, baina, antza, egunero zintzo eta txukun heltzen zen ikasgelara, etxeko lanak ondo eginda. Bere inguruko inor ez zen konturatu argal ote zegoen, bera jateaz arduratzen zelako; edo zikin ote zegoen, egunero eskolara garbi azaltzen zelako; edo ama gabe bizi ote zen; berak amaren egoera ondo ulertzen zuen eta.

**BEGOÑA VICARIO CALVO**

EHUko irakaslea

Osasun publikoaren alde

t: LOPA

Urtebete baino gehiago da dagoeneko, hegoaldeko lau herrialdeetan Osasun Publikoaren Alde herri plataformak sortzen ari direla.

Eta Bizkaian ere sortuz doaz herriz herri han hemenka. Aspaldian Osakidetzak hainbat zerbitzu murriztu egin dituelako, Lehen Arretetako anbulategietan ordutegi eta zerbitzu murrizketak daudelako, eta gainera, kasu batzuetan medikuen bajak edota oporraldiak ez dituelako ordezkatzen.

Baina badago beste gai garrantzitsu gehiago ere, esaterako, murrizketen eraginez, astiro-astiro zerbitzu batzuk pribatizatu egin dituztela. Itxaron zerrendak murrizteko kontsultak, ebakuntzak eta abar klinika pribatuetara desbideratzen dituzte, azken baten, pribatizazio estrategia maltzurra ipini dute martxan.

Horri guztiari aurre egiteko eta Osakidetzari gardentasuna eta herritarren parte hartzea eskatzeko, sortu gura dira OPA plataformak Txorierrin ere, herriz herri. Momentuz Larrabatzun sortu da taldea, bertako anbulato-

tegiko medikuaren oporraldietan, baja kasuetan eta abar Osakidetzak ez duelako ordezkorik ipintzen hasi ziren kontzentrazioak egiten, eta bertan planteatu zen OPA plataformen koordinakundean parte hartzea.

Gai honekin kezkatuta dagoen edonor hasi daiteke beste herrietan ere taldeak osatzen eta gura izanez gero Bizkaiko OPA plataformarekin koordinatzen.

Herritarren eskubidea da Osasun Publiko eta duina izatea. Eskubidea bakarrik ez eze zaindu eta defendatu behar dugun behin behineko zerbitzua da.



AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419

KURREGOITI
JATETXEA

Lauroeta etorbidea, 27
48180 Loiu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteaurregoiti.com

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai iezaguzu Facebook-en

WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Irati Iglesias da urtarrileko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du saritzat. WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



Loiuko futbol-zelaiak estalki berria du

Loiu CDek Larrondon du futbol-zelaia eta, Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean jakinarazi duen moduan, udalak ia 40.000 euro zuzendu ditu futbol-zelaiko harmailetak estalkia berritzera. Azaldu moduan, denboraren poderioz estalkia hondatu da eta horren ordez berria ipini da "Loiu CDen partidak ikustera etortzen diren zaleen segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko". Bestalde, Begoñak iragarri du datozen hileetan beste hobetze-lan osagarri batzuk egingo direla.



Beste Bira Loiu berretsi du Bizkaiko txapeldunaren titulua

Urtarrilaren 21ean, Bizkaiko Kros Txapelketa, master kategorian, izan zen Muskizen eta Beste Bira Loiu txapela lortu zuen bertan. Taldea iaz ere txapelduna izan zen eta, hortaz, titulua berrestea lortu dute. Txorierritarrek 12 puntuko aldea atera zioten bigarren sailkatuari, eta, gainera, banako lau medaila eskuratu



zituzten. "Taldea sendoa gairela erakutsi dugu beste behin, eta irabazteaz gainera atletismo gozaten dugula", adierazi dute taldearen ordezkariak. Igor Garcia, Beste Biraren burua, bigarrena heldu zen helmugara, baina lehena izan zen M50 kategorian, eta hortaz, bi medaila eskuratu zituen. Era berean, Martín Mc Grah hirugarrena heldu zen, baina lehena izan zen M35 kategorian; eta hortaz, bera ere bi aldiz igo zen podiumera. Jonmi Trebolazabala zazpigarrena izan zen, eta sailkapenerako puntuak eskuratu zituen azkena. Gainerako taldekideak izan ziren Eduardo Manzanos, Javier Allende, Luis Plasencia, Rubén Fonseca eta Igor Barcia. Bestalde, Laurent Williams laugarrena izan zen M55 kategorian, eta Alberto Fontechak debuta egin zuen "oso sentazio onak izan zituela".

Lezamako osasun-zentroa birgaitzeko lanak hasi dira

Lanak urtarrilaren amaieran hasi dira. Azaldukoaren arabera, barneko espazio guztia aldatu eta berriztuko da; medikuen lantokiak, jendearentzako arretarako gunea, komunak eta itxarongelak. Lanak egiten diren bitartean, behin-behineko gunea atonduko da udaletxeko azpialdeko lokaletan: bertan bi leku izango dira, bata, osasun-langileentzat, eta bestea, jendeari arreta egiteko. Bi aldetik sartu ahalko da: kanpoaldeko eskaileretatik eta liburutegi alboko igogailutik. Lezamako Udalak espero du lekua otsailaren erdialderako prest egotea;

bitartean, herritarrek osasun-zentroan jasoko dute arreta.



Putxera txapelketa Larrondon egingo da aurten



Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean jakinarazi duenez, Putxera Txapelketa otsailaren 24an egingo da. Txapelketa Zabalotxeko frontoian egin da aurreko urteetan, baina frontoian lanak egiten dabilta, bertan gimnasioa ipiniko da eta; horregatik, txapelketa Larrondoko frontoian izango da aurten. Begoñaren esanetan, txapelketaren xehetasunak prestatzen dabilta udala eta teknikariak.

Parte hartzeko aurrekontuen bigarren fasea abian, Lezaman

Parte hartzeko aurrekontuen bigarren faseak otsailaren 4ra arte iraungo du, eta lezamarrek 13 egitasmo dituzte bozkatzeko. Lezamako Udalak 90.000 euroko diru-partida du aukeratzeko diren egitasmoak gauzatzeko.

Lehenengo fasea amaituta, hauek dira berderagarritzat jo diren egitasmoak: oinezkoentzako pasabideen ikuspena hobetzea Athleticen errepide orokorraren eta instalazioen arteko elkargunean, eta sagardotegirako eta Goikobarrio alderako bideko argiak hobetzea (15.000 euro); Enaitz tabernatik ludotekara zebra bidea jartzea (4.000 euro); trenera igotzeko biribilgunean zebra bidea jartzea (15.000 euro); *Pumptrackean* argiak ipintzea (21.000 euro); bidegurutzetan kartelak jartzea auzoen izenekin eta etxebizitzaren zenbakiekin (30.000 euro); Ankene baserriko igoerako hesia konpontzea (1.800 euro); txakurren aisialdirako gunea sortzea (20.260 euro); Hilario Astorki plazako pergolari teilatua jartzea (17.000 euro); Gaztelekuentzako materiala (4.500 euro); eskultura bat jartzea, Lezamako emakume bendejeren lana aitortzeko (20.000 euro); rokodromo bat sor-

tzea 3 eta 10 urte bitartekoentzat (4.000 euro); saskiratze batzuk gehitzea Gurutzeko futbol zelaietan (6.000 euro); eta eserlekuak jartzea herriko hainbat tokitan (7.100 euro).

Lezamarrek zenbait bide dute eskura, botoa emateko. Horrela, botoa liburutegiko hautestontzian sartu ahal dute, edo hurrengo leku hauetan ipinitako postontzietan: Iruris, udal-etxea, Aretxaldeko geltokia, Gurutze auzoa, Bolaleku eta Goitioltzako txokoa. Gainera, urtarrilaren 26an, pertsona bat ibili zen auzoetatik. Era berean, botoa lezama.eus webgunearen bidez ere eman daiteke. Bozketan Lezaman erroldatutako 16 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake parte. Bozketan behin bakarrik hartu ahal da parte.



Larrabetzuko lehiaketa antolatu du frontoiko horma-irudia aukeratzeko

Larrabetzuko Udalak horma-irudia ipini nahi du frontoian, eta kirol-batzordeak lehiaketa antolatu du hura aukeratzeko. Azaldu dutenez, proposamenak originala izan behar du, iraunkorra eta frontoian neurrietara egokituta; artistak proposamena egiteko modua ere zehaztuko du. Udalak 1.000 euro zuzenduko ditu horma-irudia egitera. Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 29a izango da.

Lehiaketan parte hartu ahal izateko, Larrabetzuko erroldatuta egon behar da, eta 18 urtetik gorakoa izan. Lanak pendrive batean aurkeztu behar dira Anguleri Kultur Etxean. Kanpo-memoriarekin batera gutun-azal bat aurkeztu behar da, eta bertan egilearen datuak eta proposamenaren erreferentzia zehaztu. Irabazleak 300 euro jasoko ditu sarritzat. Udal-kultura batzordea izango da epaimahaia, eta aurkeztutako proposamenek baldintzak betetzen ez badituzte, saria eman gabe utzi ahal da.

Herriko kirolaririk onenak omendu ditu Deriok

Barikuan, urtarrilak 19, Derioko Kirolaren Gala egin zen Kultur Birikan. Galak hirugarren edizioa bete du aurten, eta ekitaldian herriko kirolarien eta kirol-taldeen lana aitortu eta saritu zen. Doyan, Txorierrri Basketland eta CD Derio klubetako 20 kirolarien baino gehiagoren merituak jendaurrean aintzat hartzeaz gainera, errekonozimendu berezia egin zioten Gela Pedagogikoa Kirol Elkarteari, 25 urte bete ditu eta.

Galan, Doyan Taekwondo klubeko kirolari hauek jaso zuten aitortza: borroka-arloan, Libe Tomas, Naiara Arrola, Ainhize Hernández, Ainhize Achutegui, Pablo Jiménez, Gaizka Pardo, Mario Sanabria, Izaro Antón, Violeta Perez eta Ane Vallo; eta poomsae-arloan, Danel López, Laura Ferreira, Garazi de la Torre eta Aitor de la Torre, Fran Valle, Laura Nofuentes, Jon Jorge Nofuentes, Markel García, Elizabeth Garnett, Unai Velada eta Senda Rueda.

Bestalde, Txorierrri Basketland klubeko kirolari hauek omendu zituzten: emakumezkoen haur-taldea, emakumezkoen junior taldea, Ro-

berto Flores eta Luliana Balog. Era berean, CD Derioko A kadete taldea eta gizonezkoen lehen taldea omendu zituzten; baita Iñaki Ateka ere, klubean ibilbide luzea egin du eta. Azkenik, Harriet Aketxe eta Markel Cidon atleta gazteek ere jaso zuten errekonozimendua.

“Ez dut ordezkaritza hoberik imajinatzen”, esan zuen Esther Apraiz Derioko alkateak galan. “Deriok enbaxadorerik onenak ditu hain-

bat eta hainbat kirol-lehiaketan. Eskertzekoa da, eta batez ere aitortzekoa, zuen sakrifizioa, ahalegina, laguntasuna eta hobetzeko gogoia. Harro gaude zueztaz”. Apraizek adierazi zuenez, kirol-jarduera aisialdi osasungarriko tresna estrategiko moduan bultzatzen jarraitzeko konpromisoa du Derioko Udalak, eta horretarako, “kalitateko kirol-instalazioak adin guztietako derioztarren eskura jartzen ditu”.



a: DAT

23. KORRIKAK martxoaren 21ean zeharkatuko du Txorierri



Euskararen aldeko lasterketa erraldoia martxoaren 14an irtengo da Irundik, eta, hamaika egunean Euskal Herri osotik igaro ostean, martxoaren 24an ailegatuko da Baionara. Txorierri hiru egun lehenago, martxoaren 21ean, zehar-

katuko du. Erandiogoikora sartu, eta handik Larrabetzura abiatuko da, bidea Galdakaotik jarraitzeko.

23. KORRIKA goizean ailegatuko da Txorierri. Aurreikuspenen arabera, 09:35ean sartuko da Erandiogoikora eta gure eskualdean hurrengo ibilbide hau egingo du: Sondika (09:57) – Loiu (10:13) – Derio (10:20) – Zamudio (10:45) – Lezama (11:07) – Larrabetzu (11:30).

Lekuko aldaketak, bestalde, leku hauetan egingo dira: Erandiogoikoa: Kukularrako errotanda, Arriaga plaza, Altzaga Goikoa 86 eta Avanzada errepidea 31; Sondika: Asua plaza, Asua errepidea 23B (aireportua), Txorierri etorbidea 8, Goiri plaza eta Berreteaga (bus-geltokia);

Loiu: Txorierri etorbidea 6 (Larrondogaina) eta Larrabari (bus-geltokia); Derio: Txorierri etorbidea 35, Txepetxa euskaltegia, Euskal Herria 6, Politeknika Txorierri eta Baserri Antzokia; Zamudio: suhiltzaileak, Kadaltso baserria, Arteaga-San Martin z/g, Arbolantxa 5, Zamarripa plaza eta eskola; Lezama: Larragoiti (bus-geltokia), Kurtzeko ermita, frontoia eta Iberre (BI-3713); eta Larrabetzu: industrialdea, Kiskibile (BI-3713), futbol-zelaia, plaza, Sarrikola 34 eta Urkulu baserria.

Guztira 2.700 kilometroko lasterketa izango da eta ibilbidearen xehetasunak KORRIKA aplikazioan bertan zein webgunean (www.korrika.eus) kontsultatu daitezke.

SADeko langileek Mankomunitateari eskatu diote euren egoeraz arduratu dadin

Txorierriko Etxez Etxeko Laguntza-zerbitzuko (SAD) langileek eta Itaiak deituta, urtarilaren hasieran mobilizazioa egin zen Derion, SADeko langileen lan-baldintza eskasak salatzen eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateari eskatzeko "euren egoeraz arduratu dadin eta zerbitzua ematen duen enpresari, Urgatzi SL, presioa egin diezaion oinarritzko baldintzak bete ditzaitez". Hainbat herritarrek bat egin zuten deiarekin, langileei babesa adierazteko.

SADeko langileek komunikatu bat irakurri zuten. Haren bidez azaldu zuten moduan, ia urtebete daramate borrokan euren lan-baldintzen hobetzeko, "eta apirilean erabateko prekarietatera eramaten gaituen hitzarmena sinatu zen arren, ez dugu amore emango". Langileen esanetan, azken 10 urteetan bakarrik 30 euroko soldata-igoera izan dute, eta zerbitzua emateko euren autoa erabili behar dute; horrek 1.300-1.500 euroko gastua ekartzen die urtean. Horre-

zaz gainera, adierazi dute, besteak beste, ordu erdiko zerbitzuak ere ematen direla, senideei eta zaintzaileei ez zaiela atsedena hartzeko ordu eskaintzen eta kasuak ez direla guneka antolatzen.

SADeko langileek Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateari eskatzen diote Urgatzi SL enpresari presioa egiteko, "hainbat lan-baldintza bete ditzaitez, hala nola kasuak guneka antolatzea, lan-arropa zerbitzua ematen den landa-ingurunera egokitzea, erabiltzaileen txostenak eguneratzea eta langileok autoaren gastua beren gain hartu behar ez izatea". Era berean, Mankomunitateari eskatzen diote "ordu erdiko zerbitzua gutxienez ordu-beteko zerbitzu bihurtzeko, langile guztiei udalerriri guztietan aparkatzeko txartelak emateko eta senideei edo zaintzaileei atsedena hartzeko orduak eskaintzeko".

Itaiko ordezkariak ere irakurri zuten komunikatua. "Instituzioek aurpegi aurrerakoa eta berdintasunaren aldekoa erakutsi nahi duten arren, emakume langileon bizi- eta lan-baldintzen kaskartzearen konplize zuzenak dira", esan zuten. Gainera, azpimarratu zuten beste alde batera begiratzeak langileen lan- eta bizi-baldintzetan ez ezik zerbitzuan ere erabiltzaileengan ere eragina duela. "SADeko langileen aldarrikapenak babestea eta Mankomunitateari egoeraren ardura har dezan exijitzea guztion ardura da".



Mintzpraktika **POZA**

ZABALTZEN JARRAITZEKO AUKERA BERRIRO ZABALIK

Ametsek euskalduna da, 24 urte ditu eta D ereduan ikasi du. Kuadrillan erderaz egiten dute beti, eta hori dela-eta ez du topatu euskaraz non egin. Erabiltzen ez duenez, euskara ahaztuta du eta orain lotsa ematen dio euskaraz egiteak, hanka sartzearen beldur delako. Horregatik, izena eman du Berbalagun egitasmoan: hainbat gazterekin biltzeko aukera du, eta elkar epaitzen ez dutenez, euskaraz egiteko –eta hanka sartzeko– leku segurua topatu du.

Boschra, berriz, Aljeriatik etorri zen duela urte batzuk. Alabak euskaldunak dira, eta bera ere animatu da euskaltegian ikastera. Hala ere, ez du norekin praktikatu, eta izena eman du Berbalagun egitasmoan.

Endika euskara ikasten ibili da azken urteotan. Ikasketa-prozesua amaituta, bera bezala, ikasten ibili direnekin partekatu nahi du dakiena, eta euskaraz hitz egiteko gunea eskaini.

Nekane etxean jaso zuen euskara. Kezkatuta dabil herriko euskararen erabilerarekin, eta bere aletxoak jartzea erabaki du, erabilera areagotzen laguntzeko.

Berbalagun-talde bereko kideak dira laurak, eta eguaztenetan elkartzen dira lagun-giroan eta kafea hartzen duten bitartean euskaraz egiteko. Ziur asko, Ametsek, Boschrak eta milaka lagunak bezala, zuk ere hamaika arrazoi dituzu hizkuntzan trebatu eta euskaraz bizi nahi izateko. Edo, beharbada, Endika eta Nekane moduan, prest zaude hain beharrezkoak diren bidelagun izateko. Izan ere, euskarak guztiok behar gaitu: bidelagunok zein bidelariok.

Horretarako, Berbalagun edo Mintzapraktika egitasmoa martxan dugu Euskal Herriko hainbat herritan. Talde guztiek funtzionamendu bera dute: euskara ikasten dabilzanak edo praktikatu nahi dutenak eta euskara egunerokotasunean erabiltzen dutenak astean behin elkartzen dira euskaraz egiteko; noiznahi eta nonahi. Gainera, bestelako ekintzak ere antolatzen dituzte, hala nola mendi-irteerak, dastatzeak eta antzerkira joatea. Izan ere, Berbalagun egitasmoan guztiontzako lekua dago: gazteentzat, helduentzat, gurasoentzat, mendizaleentzat, kirolarientzat... Bestalde, Berbalagun egitasmoa aukera ederra da jende berria ezagutzeko eta herrikideak eta lagunak euskarara hurbiltzen laguntzeko.

Izena emateko

747 447 579

berbalagun.txorierri@gmail.com

antolatzailea



babesleak



laguntzaileak



Dena prest Inauteriak gozatzeko

Inauterien atarian gaude, eta herrietan azken ukituak ematen dabilta festa gozatzeko. Mozorro-lehiaketak izango dira, musika, tailerrak...

Inauteriak otsailaren 3an izango dira Loiu, Larrondo auzoan hain zuzen. Udalak antolatuta, arratsaldeko 4etatik aurrera puzgarriak eta simulagailuak egongo dira, eta 17:00etan mozorro-lehiaketa hasiko da. Mozorrorik onenak 150 euro jasoko ditu saritzat; bigarrenak, 100 euro; eta hirugarrenak, 50 euro. Gainera, Dj Xaiborrek festa girotuko du eta sariak eta sorpresak egongo dira. Mozorroa janzen duten ume guztiak gozoki-poltsa bana jasoko dute.

Zamudion, motorrak otsailaren 8an eta 9an berotuko dituzte, Ludotekan Veneziako maskarak egingo dituzte eta. Nolanahi ere, Inauterien egun nagusia hurrengo egunean, otsailak 10, izango da. Goizeko 11,30ean mozorro tailerra egingo da liburutegian, eta 17:30ean, tostada-lehiaketa Adintsuen Etxean. Jarraian, dantza-saioa izango da eta tostadak banatuko dira. "Zu izar" mozorro-lehiaketa 18:30ean izango da Agirre Lehendakariaren plazan; gainera, ekintza Dj batek girotuko du 21:30ak arte. Txapelketan, lau kategoria izango dira: sei urtera arte, 6 urtetik 12 urtera bitartean, 12 urtetik 18 urtera bitartean, eta 18 urtetik gora. Kategoria bako-

tzeko Zamudioko Udalak hiru sari eman- go ditu: 80 euro, irabazlearentzat; 60 euro, bigarrenarentzat; eta 40 euro, hirugarrenarentzat. Izena ematea otsailaren 8ra arte egin daiteke udaletxean, Gaztestazioan edo Ludotekan. Txapelketan banaka zein taldeka hartu daiteke parte, baina taldeki- deak adin ezberdinetakoak badira, talde- kide nagusiaren kategorian lehiatuko dira. Parte-hartzaileek izen artistiko originala pentsatu beharko dute, eta emanaldiak mi- nutu bat iraun beharko du. Emanaldia abesti batek lagunduta eginez gero, izena ematean zehaztu beharko da, eta emanal- dia abestiaren lehenengo minuturako pres- tatu. Bestalde, 19:30ean tostadak izango dira Gaztestazioan, eta 20:00etatik 00:00- etara erromeria egongo da Agirre Lehen- dakariaren plazan, Lehian taldearen esku- tik. Azkenik, otsailaren 16an eta 17an mo-



zorro-lehiaketa eta *Photocalla* izango dira Gaztestazioan.

Derion ere ekintza-sorta zabala egon- go da otsailaren 9tik 11ra bitartean. Ba- rikuan, 18:00etatik aurrera, Dantzatze- ko prest! disko jaia eta txokolatada egingo di- ra estalitako kantxetan. Gainera, 20:00etan *Por hacer un favor* antzezlan- a ikusteko aukera egongo da Gurea Aretoan. Mozo- rro-lehiaketa zapatuan egingo da. Izena ematea otsailaren 8ra arte egin daiteke derio.eus webgunean; edo aurrez aurre zapatuko 17:00ak arte. Desfilea 18:00etan hasiko da San Isidro elizatik eta Batukada Battuere taldeak girotuko du. Mozorro lehiaketa 19:00etan izango da estalitako kantxetan, eta 20:00etatik aurrera Malas Compañías taldearen musika gozatzeko aukera egongo da kale artean. Domekan, 18:00etan, dantzatze- ko musika egongo

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

Centro Dental
Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

da Nagusien Etxean. Horrezaz gainera, #JantziDerio kanpaina egingo da tabernariekin. Tabernetan maskara eskatu, argazkia egin eta esandako traola idatzita igo behar da gizarte-sareetara. Parte-hartzaileen artean 50 euroko bi txartel zozkatuko dira.

Beste aldetik, Maskarita Eguna otsailaren 9an egingo dute Larrabetzun. Arratsaldeko 5etatik 7etara zenbait ekintza izango dira plazan, hala nola txokolata eta lastozko txanoen tailerra; gainera, plaza eta kalea apainduko dituzte. Kalejira 19:00etan hasiko da. Kukubiltxo paretik aterako dira eta kalejira Bizkargi dantza-taldeak eta Eingo musika-taldeak gidatuko dute. Ostean, Anguleri kultura etxearen aurrean, larrabetzuarrek asmatu beharko dute aurten Maskarita nor den. Eingo taldearen eskutik, dantza-plaza izango da 20:00etatik 22:00etara, eta, eguna biribiltzeko, mozorroen pasarela egingo da 23:00etan, Hori Bai gaztetxean. Kulturbilguneak antolatutako ekintzak dira.

Lehiaketak

Lezaman otsailaren 10ean gozatuko dituzte Inauteriak. Frontoian, 17:00etatik 21:00etara, hainbat ekintza izango dira, esaterako, *glitter* makillajeko karpa, karioka tailerra eta fotomatona. Azken horri dagokionez, herritarrek aukera izango dute argazkiak momentuan jasotzeko eta digitalki ere deskargatzeko. Horrezaz gainera, diskofesta egongo da Ismeder djen eskutik (Isma Conquis + Oizeder Mayo). Egun ho-

retan ere Inauteriak ospatuko dituzte Gaztelekuan. Festa 18:00etatik 22:00etara izango da, eta egingo dituzte mozorro-lehiaketa eta mini-dantza. Era berean, Ludotekak 2019an eta 2020an jaiotako umeentzako jai antolatu du otsailaren 12rako, eta 2016tik 2018ra bitartean jaiotakoentzat otsailaren 13rako. Kasu bietan, jai Gaztelekuan egingo dute 17:00etaik 19:00etara, eta bertan izango dira merendola, desfilea eta zenbait sorpresa. Ekintzak bi euro balio ditu, eta izena ematea otsailaren 2ra arte egin daiteke Ludotekan.

Sondikan, bestalde, otsailaren 16an eta 17an ospatuko dituzte Inauteriak, eta Sondikako Inauteriak elkarteak jakinarazi du barikurako zein gai aukeratu duen: mundu magikoa. Horrezaz gainera, ohikoa den moduan, mozorro-, karroza- eta animazio-lehiaketak antolatu ditu otsailaren 17ko. Izena emateko epea otsailaren 17aren 12ak

arte egongo da zabalik, eta taldeek nahi beste lehiaketetan hartu ahalko dute parte. Horretarako, mezua bidali beharko dute sondikakoinauteriak01@gmail.com helbide elektronikora, eta datu hauek adierazi: taldearen izena, zein lehiaketan parte hartuko duten, zenbat partaide diren eta telefono-zenbaki bat. Irabazleak nortzuk diren otsailaren 17an, 22:00etan, egingo den sari-banaketan jakinaraziko da. Mozorro-lehiaketaren irabazleak 200 euro jasoko ditu saritzat; eta bigarrenak eta hirugarrenak, garaikur bana. Karroza-lehiaketaren irabazleari 300 euro emango dizkiote saritzat; eta bigarrenari eta hirugarrenari, garaikur bana. Animazio-lehiaketaren irabazleak 100 euro eskuratuko ditu; eta bigarrenak eta hirugarrenak, garaikur bana. Azkenik, aipatu beharra dago aurten, Sondikako Inauteriak taldeak antolatuta, lehenengo aldiz herri-bazkaria egingo dela zapatuan.



www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA MUNGIA • 946 74 45 75

POLITEKNIKA TXORIERRI
hegan
egiteko aukerak
Batxilergoa eta Lanbide Heziketa
Bachillerato y Formación Profesional
Eman izena!
www.politeknikatxorierri.eus
HETEL

Hezkuntza-subiranotasuna eraikitzen

SEMENTE ESKOLAK

Semente eskolek *Aprender na língua própia* dokumentala egin dute, eta hori Euskal Herriko zenbait herritan aurkeztu dute urtarrilean; Derion, haien artean. Lana Marikobaso Espazioan, hain zuzen, aurkeztu zen, eta haren ostean As regueifeiras da Semente taldearen musikaz gozatzeko aukera izan zuten hara hurbildu zirenek.

t: Itxaso Marina

Santiago Quiroga da *Escolas de Ensino Galego* Sementeren koordinatzailea. Azaldu digunez, dokumentalaren helburua da azpimarratzea herri-ekimenaren bidez hezkuntzan galegoa sartzeko lehen esperientzia historikoaren balioa. "Lehenengo ikastetxea 1923an ipini zen martxan Coruñan, hiru berezitasun hauek zituela: galegoan oinarritutako eredu eleaniztuna, nazio-errealitatean oinarritutako curriculum eta laikotasuna". Eredu horretan oin hartuta, lehenengo Semente eskola 2011n sortu zen eta harrezkero hainbat hiritara zabaldu da. "Urte horretan eleaniztasunari buruzko dekretua onartu zen, baina horrek, egia esan, ekarri zuen galegoa Haur Hezkuntzako eskoletan minoritarioa izatea; % 10 baino gutxiago, Normalizazio Linguistikorako Mahaiaren arabera. Bestalde, galegoaren erabilerari dagokionez, Lehen Hezkuntzako ikastetxe eleaniztuetan % 50etik % 33ra pasatu zen, eta, gainera, kontuan hartu beharra dago, ikastetxe bakoitzaren proiektua zein zen, portzentajea % 50 baino handiagoa izan zitekeela. Atzerakadak herri-ekimena bultzatu zuen Semente eskola sortzera".

Gaur egun eskola dute Trasancosen, Konpostelan, Vigon, Coruñan, Lugon eta Ourensean, eta horietan guztira 150 umek ikasten dute. "Eskola guztietan Haur Hezkuntza eskaintzen dugu, eta Lehen Hezkuntza, Trasancosen eta Konpostelan. Gurea eredu eleaniztuna eta inklusiboa da, eta helburu dugu galegoa ama-hizkuntza duten ikasleek hura mantendu

*"Eredu eleaniztuna
eta inklusiboa da,
eta ikasleen erritmoa
eta beharizanak
errespetatzen ditu"*

dezatela eta ama-hizkuntza ez dutenek ikasi eta erabili dezatela". Pedagogia-arloan, ikasleak euren ikasketen protagonistak dira. "Hau da, euren erritmoa, beharizanak eta interesak errespetatzen ditugu. *Escolas de Ensino* moduan, gurea proiektu laikoa da, eta curriculumari dagokionez, autozentratua; egitasmo feminista eta eraldatzailea ere bada".

Ikastetxe guztietako kudeaketak asanblada- eta herri-izaera du, eta gurasoek, ikasleek eta irakasleek parte hartzen dute hainbat batzordetan, hala nola antolaketa- eta ekonomia-komisiotan eta eskolaz kanpoko ekintzetan. "Gehienbat autogestioaren bidez funtzionatzen dugu; hala ere, laguntza publiko batzuk ere jasotzen ditugu, batez ere dinamizazio kulturalaren eta linguistikoaren arlokoak. Esaterako, Apalpador -Olentzero, Euskal He-

rriari- pertsonaia berreskuratzea oso lotuta dago gizarte-zentro autogestionatuei eta Semente eskolei. Era berean, eskolaz kanpoko ekintzak galegoz eskaintzen dizkiegu ume eta gazte guztiei, gure eskoletan dabilzan edo ez alde batera utzita, eta kultura-produktuak ekoizten ditugu, material didaktikoa eta ludikoa, musika...". Irakasle guztiek egin dituzte irakasle-ikasketak, baina haiek kontratatzeko orduan zenbait irizpide hartzen dituzte kontuan. "Adibidez, gizarte-mugimenduekin harremana izatea eta galegoa jakiteaz gainera erabili dezatela; kontzientziatuta egon daitezela. Ikasturte hasieran trebakuntza jasotzen dute Semente egitasmoaren gainean".

Quirogaren esanetan, jasangarritasun ekonomikoa da hezkuntza-eredu honek aurre egin behar dion erronkarik handiena. "Hasiera-



“Hasieratik argi izan dugu Semente eraldaketa sozialerako eta politikorako egitasmoa dela”

tik argi izan dugu Semente eraldaketa sozialeko eta politikorako egitasmoa dela. Horregatik, ez dugu nahi, baliabide ekonomikorik eza dela eta, inor egitasmotik kanpo gelditzea, eta nahiko kuota baxuak ezarri ditugu hori ekiditeko. Bekak ere ematen ditugu, eta kasu batzuetan kuotaren zati bat eskolarako lanak eginez ordaintzen da. Egiteko modu horri eutsi ahal izateko, material asko saldu behar dugu, kontzertuak antolatuz, bazkari solidarioak...”

Erronkak

Galegoa ikasteko eta erabiltzeko murgiltze-egitasmoa da Semente, eta hortaz, esparru linguistikokoan ikasleei ekartzen dizkien onurak ez dira hutsalak. “Izan ere, azken ikerketen arabera, galegoz egiten duten eta ikastetxe publikoetara sartzen diren gehienek hizkuntza galtzen dute hilabete gutxian, eta Haur Hezkuntzan sartzen diren hirutik bakarrik batek jarraitzen du Bigarren Hezkuntzan galegoz egiten”. Era berean, eredu pedagogikoa ikasleen autonomo-

miaren garapenari lotuta dagoenez, beste onura batzuk ere ekartzen ditu. “Ikaste-prozesuek ahalbidetzen dute heziketa-garapenean zehar gaitasun nabarmenagoak hartzea. Ikuspegi etiko batetik, gure ikasleek harreman handia dute auzo-elkarteekin eta kultura-taldeekin, eta ondorioz, kontzientzia zibiko handia duten pertsonak dira. Are gehiago, sen kritiko handia duten pertsonak dira, eta hori, gure ustez, ezinbestekoa da, etorkizuneko gizartea hobetzeko herritarrak egotea nahi badugu”.

Etorkizunari begira dago Semente eta hainbat erronka ditu datozen urteetarako. “Hezkuntza- subiranotasuna eraikitzeke jaio gara, eta Galiziako Eskola Nazionala sortzeko helburu historikoa betetzeko. Apaltasunez, uste dugu gure esperientzia lagungarria izan daitekeela ikastetxe publikoek hezkuntza-egitasmo eta proiektu linguistiko anbiziotsuagoak

“Ikasleek sen kritiko handia dute; hori ezinbestekoa da etorkizuneko gizartea hobetzeko herritarrak egoteko”



garatu ditzaten”. Beste erronka bat da ikastetxe gehiago zabaltzea, eta ondorioz, ikasle gehiago izatea. “Gizarte-oinarri handiagoa ere izan nahi dugu. Horrela, egonkortasun ekonomiko handiagoari esker, egitasmoa inklusiboagoa lortuko dugu eta egoera sozioekonomikoa ez da traba izango, ahalik eta ikasle-kopuru handienak Semente eskolatar jo ahal izateko”.



Lehen urratsa

Galiziako Estatistika Institutuaren datuen arabera, bost urtetik 14 urtera bitarteko ikasleen % 30 inguruk zailtasunak ditu galegoz adierazteko. “Lau ikasletik batek adierazi du ez dakiela galegoz ondo hitz egiten, ezta idazten ere. Bestalde, gazteen % 20 inguruk erabiltzen du galegoa, baina, aitzitik, 70 urtetik gorako pertsonen % 80k baino gehiagok; horrek argi adierazten du gazteengan elebakartasuna, gaztelania, nagusitzen ari dela”. Quirogaren ustez, ordezkapen linguistikoaren prozesua asko azkartu da azken 40 urteotan. “Ziur asko, Espainiako komunikabideen eraginagatik izan da, eta ez delako politika linguistika eraginkorrik egon. Gainera, Galizian histori-koki ez da burgesia nazionalik egon eta horrek ekarri du gure hizkuntza klase herritarrekin lotzea; ondorioz, estatus edo botere sinboliko txikia du”.

Semente egitasmoa lehen urratsa da egoera aldatzeko. “Gure iritzi, Galiziako dinamika linguistikoa aldatzeko, lehenengo eta behin beharrezkoa izango litzateke nazionalismo galiziarrek botere instituzional handiagoa izatea, politika linguistiko lagungarriak egin ahal izateko. Nolanahi ere, pentsatzen dugu autonomia-botere instituzionala oso mugatuta dagoela, eta, hortaz, gure herriaren eraikitze eta askatze nazionalaren eta sozialaren prozesuak aurrera egin dezan, herri-antolaketaren ahalmenik ez badago, ez da posible izango. Horregatik, uste dugu Semente hizkuntza-ekimena bitartekotza linguistikoa dagoen esparru guztietara zabaltzea beharrezkoa lukeela. Hau da, gure burua esparru guztietan antolatu behar dugu, gure hizkuntza arlo guztietan normaltasunez erabiltzeko”.

“Ez nekien hain presio handian lan egiteko gauza nintzenik”

DANEL ARTEAGA IBARRONDO | abeslaria

Sondikoztarra izan da *Ztanda* ETB1eko musika-saioaren partaideetako bat, eta finalean ikusi dugu Ken Zazpiren *Itsasoa gara* kanta ezin dotoreago abesten. Finala ez du irabazi; hala ere, 19 urteko gazteak oso esperientzia polita eta hainbat irakaspen eraman ditu *talent show*-etik.

t: *Itxaso Marina*

Miriam Lujak irabazi du finala, espero zenuen?

Bai. Lehenengo egunean bertan, etxera itzuli nintzenean, amari esan nion nire us-tez bi parte-hartzailek saioa irabazteko aukera handia zutela, eta ez naiz erratu: biak aurrez aurre ibili dira finalaren azken due-luan.

Zu finalistetako bat izan zara, eta hirugarrena gelditu; ez da emaitza makala...

Egia esan, ez nuen finalera ailegatzeko esperantza handirik. Izan ere, finalaren aurretik gala hau edo bestea irabaziko nuela pentsatzen nuen, edo immunitatea ematen zuen urrezko mikrofonoa jasoko nuela, baina azkenean beti hautatzen ninduten duelurako... Hori dela eta, sorpresa izan zen azkenean urrezko mikrofono hori jaso eta finalerako zuzeneko txartela eskuratzea.

“Sorpresa izan zen urrezko mikrofonoa jaso eta finalerako zuzeneko txartela eskuratzea”

Zergatik animatu zinen saioan parte hartzera?

Amak eman zidan saioaren berri eta berak animatu ninduen izena ematera. Nik ez nuen nahi, baina ama tematu zen eta azkenean lortu zuen nik bideo bat bidaltzea. Saiotik deitu zidaten, filtro batzuk gainditu nituen, eta *casting*-a egin nuen.

Nolako esperientzia izan da?

Ona, orokorrean. Grabazioak Campos Eli-seos antzokian egin ditugu, baina saioa grabatu baino lehen entsegua egin behar zen, eta orotara 10 ordu inguruko lanaldiak izan

dira. Gainera, zenbait astetan bi saio grabatu izan ditugu ia jarraian: bata, astelehenean, eta bestea, eguaztenean. Hortaz, martitzene-tan buru-belarri ibili behar izan dut hurrengo eguneko grabaziorako abestia prestatzen...



Nahiko estresagarria dirudi; nola prestatu dituzu abestiak?

Nire kabuz. Epaimahaikideek esan di-date zein abesti kantatu, eta hori moldatu behar izan dut nire estilora eta tonura; koreografia eta guzti. Amak eta biok ordu asko eta asko eman ditugu moldaketak egiten.

“Epaimahaikideek esandako abestiak nire tonura moldatu behar izan ditut; koreografia eta guzti”

Abestiren bat azpimarratu nahiko zenuke?

Keane taldearen *Somewhere only we know* abestia. Lehenengo bost galetan gaixorik ibili nintzen, anginak handituta, eta ahotsa ere galdu nuen. Abesti hori laugarren galan kantatu behar izan nuen, eta grabazioa astelehen batean genuen. Oso kezkatuta ibili nintzen, ez nekielako kantatzeko gauza izango nintzen, eta asteburu osoa hitz egin barik eman nuen ahotsa berreskuratu ahal izateko. Grabazioa baino lehen apur bat entseatu nuen, propoleoa eta pilularen bat hartu, eta ondo irten zen.

Zelan konpondu zara epaimahaikideekin?

Ondo orokorrean; hala ere, egia esan, ez dugu haiekin harreman handirik izan. Lehen saioan egurra eman zidaten, baita azken saioetan ere, baina kritikak onartu behar dira, eta kito. Bestela, kiribil edo egoera desegoki batean sartzen zara, eta horrek zure kontra jokatzeko du.

Eta gainerako parte-hartzaileekin?

Oso ondo! Gainera, antzeko arazoak izan ditugunez, elkarrengandik hurbil sentitu gara. Oso jatorrak izan dira.

“Kritikak onartu ezean, egoera desegoki batean sartzen zara; horrek zure kontra jokatzeko du”

Pozik zaude egindakoarekin?

Oso pozik. Egia esan, leku hobean gelditzea gustatuko zitzaidan, baina ahalik eta ondoen egin dut eta esperientzia gustatu zait. Gainera, nire burua kontrolatzen ikasteko balio izan dit, ez nekielako hain presio handian lan egiteko gauza nintzenik.

Ospetsu bihurtu zara?

Ez (kar-kar)! Jendeak ezagutzen nau herrikoa naizelako; ez saioan parte hartu izanagatik.

Zein asmo duzu etorkizunari begira?

Abeslaria izatea gustatuko litzaidake, eta jakin badakit horretarako oso lan handia egin behar dudala. Nire abestiak konposatzen hasi naiz, eta ahaleginduko naiz taber-

na batean edo bestean jotzen, ea jendeari nire musika gustatzen zaion!

Eta zein musika-mota gustatzen zaitzu zuri?

Batez ere popa: Eñaut Elorrieta, Justin Bieber, Alex Sardui, Ed Sheeran, Shawn Mendes...

Beste musika-saio batean parte hartzeko asmorik?

Bada, *Ztanda* saioko lagun batzuk behin baino gehiagotan aurkeztu dira *Operación Triunfo* saiora, eta animatu naute ni ere aurkeztera... Amak ere animatzen nau... Baina ez dakit; ikusiko dugu.

“Nire abestiak konposatzen hasi naiz, eta ahaleginduko naiz taberna batean edo bestean jotzen”

Hurbiletik

Hamabi urte zituela hasi zen eskolako abesbatzan kantuan, Leioako Kantika Koralean, eta gaur egun Leioako San Juan abesbatzan dabil. Pop-musika du gustukoen, eta esan digu autodidakta dela eta dakien guztia Interneten arakatzuz ikasi duela. “Lagun baten amarekin ere ibili nintzen gitarra jotzen ikasten, baina pandemia zela-eta bertan behera utzi genituen eskolak eta harrezkero nire kabuz jarraitu dut. Bestalde, kantu-eskolak jasotzeko asmoa dut, izan ere, abesbatzan zelan kantatu dakidan arren, ez dakit pop-estiloa modu egokian nola joratu, zein teknika erabili...”

Etorkizunean musika ogibide izatea gustatuko litzaioke; bitartean, basozaina izateko ikasten dabil Derioko Nekazaritza Eskolan. “Biologia asko gustatzen zait, baina ez dut nire burua laborategi batean ikusten. Basozain izateko graduaren berri izan nuen eta aukera polita iruditu zitzaidan. Goi-mailako gradua da eta azken urratsean nabil”. Uritarra eta Sondika futbol-taldeetako jokalaria ere izan da, eta aitortu digu sukaldean ibiltzea asko gustatzen zaiola. “Beti nabil inprobisatzen eta osagaiak nahasten: batzuetan ondo ateratzen da, eta beste batzuetan, ez hain ondo (kar-kar)”.



HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO



RADIO TAXI FEMADE *Zure taxi, Txorienikoa*

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h **94 480 09 09** 

ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com



DESKARGATU APP-A
TAXI FEMADE

Trenbide zaharrak

t/a: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka

Gure mendi eta aranetan badaude gaur egun ibilbide ederrak, ia aldapa gabekoak, paseorako aproposak. Beste garai batean trenbideak zirenak; gaur egun bide berdeak bihurtu direnak.

XIX. eta XX. mendeen artean, industrializazioarekin batera ferrokarrila etorri zen, meategietako mineralak, bidaiariak edota merkantziak garraiatzeko (Bilbotik Deriora, hilerrira, gorpuk ekartzen ziren). Gerora trenbide horietako asko bertan behera geratu ziren.

Batzuk aipatuko ditugu: Burdinmendi, 30 km-ko ibilbide galanta Enkarterritik, Gallartatik Traslaviñaraino doana; Itsaslur, hiru kilometro eta erdikoia, baina ikusgarria dena eta Pobeñatik Kobaronera itsas-bazterretik doana; eta Atxondotik, Anboto mendiaren itzalpean doan bost km-ko Arrazolako bide berdea. Apur bat urrunago joanez gero,

beste hauek topatuko ditugu: Bergara-Gasteiz-Lizarra, 100 km pasatxoko ibilbidea, oso lur ezberdinak zeharkatzen dituena eta gaur egun ia osorik egin daitekeena; Plazaolako trena, Andoainen hasi, Leitzatik pasatu eta Saratsaraino heltzen den 42 km-ko ibilbidea (12 km falta zaizkio Iruñera heltzeko); Bidasoako trena edo "tren txikito"; Irunetik Elizondoraino 50 km egiten dituena; Arditurri bide berdea, Oiartzunetik Erreterriara...

Gure inguruan ere baditugu: Lutxana-Sondika-Mungia linea izan zenetik Mungia-Zabalondo tartea gelditzen da gaur egun bidegorri bihurtuta, baita zati txiki bat, Airtza auzotik (Loiu) Deriorantz doana; eta nola ez, hil honetako ibilbide-proposamena: Lezamako trenbide zaharra Artxandatik gora. **AIKOR!** aldizkarian aurretik ere idatzi dugu bere historiari buruz eta ondoren laburpena egingo dugu. Lezama-Begoña lurrun-trena 1894. urtean ipini zen martxan, eta hurrengo urtean Bilboraino luzatu zuten.

Trenbidea Lezamatik hasi, eta oraingo trenbidea doan lekutik zihoan, baina Derio pasatuta ezkerretara egiten zuen, Asua erreka gurutzatu, eta Artxanda igotzen zuen. Ia goian, tunel labur bat gurutzatzen zuen eta beste aldetik Begoñara eta Bilbora jaisten zen. 1895eko uztailaren 7an, trena Lezamatik irten, eta Zurbaran ingurutik jaistean errailetik irten zen; ondorioz, 13 lagun hil ziren. Aurrerantzean ibilbidea aldatu zen, eta Artxanda igo beharrean, Ola ondotik (Sondika) dagoen tunel luzeagotik heltzen da Bilbora. Lehengo trenbidea abandonatu zen eta paseo eder baterako geratu zaigu.




Lezamako trenbide zaharra: Uholde batek eraman zuen zati hau.



Lezamako Trenbide Zaharra.



Lezamako trenbide zaharreko tunela.



Gasteiz-Lizarra bide berdea Acedo inguruan.



Lezamako trenbide zaharra. Trenbide azbiko urbideak.


Ibilbide proposamena

Hamar kilometroko ibilbide eder hau Olako (Sondika) tren geltokian hasiko dugu. Ekialdera eginez Goietxa bidea hartuko dugu, eta autobia azpitik Usena Berri baserriaren parera ailegatuko gara. Ezkerrean, Larrondotik datorren errepidea ikusiko dugu; guk eskuineko estrata hartuko dugu eta bertan karkaba handi bat ikusiko dugu sasiz eta landaretzaz beterik. Gezurra badirudi ere, lurrun-trena hortik joaten zen aspaldian. Jarraitzea besterik ez dugu. Tren batek ezin du kurba handirik hartu; ezta aldapa handirik igo ere. Asfalto-zati labur baten ondoren, "oihana" dator, edo ia, baina ez da zaila trenbide izandakoari jarraitzea, edo, ezin denean, bazterretatik doazen bidezidorrei jarraitzea.

Pinadi berde ikusgarri batera heldu, eta trenbidea zena amildegitxo batean amaituko da, erreka gainean. Uholde batek eraman zituen lurak. Beraz, erreka gora joango gara, zubi bat gurutzatu, eta eskuineko lehen pista hartuko dugu. Berriro trenbidean gaudela, astiro-astiro, paraje ezin ederragotik joango gara. Ez da erraza, baina ahal izanez gero, merezi du bihurgune zabal batean erreka jaitea eta ura pasatzeko egin zuten zubi-tunela ikustea. San Roke errepidera heltzen garenean, zentzuak esan beharko digu nondik jarraitu. Lurra, asfaltoa eta harritxingorak tartekatuz, mahasti eder batzuen ondotik pasatuko gara, eta tunelera heldu. Lokatzez beteta dago, eta hortaz, ez da erraza bertara sartzea, eta are gutxiago gurutzatzea.

Tunelera sartu-irten bat egin, eta atzean utzi dugun bidezidor batetik, hasieran beherantz zihoanetik, Pikeko bidera helduko gara (txirindularitzak modan jarri duena). Artxandara igo, eta beste aldera jaitsita, etxalde batek ez digu tunelaren hegoaldeko ahoa ikusten utziko. Via Vieja de Lezama kaletik jaisten gabiltzan bitartean irudikatu dezakegu trena pasatzen dela eta maldak mahastiz beteta daudela, eta jendea, txakolindogietan. Begoñara helduko gara eta Mallo-nako eskaileretatik Bilbon amaituko dugu ibilbidea. Egokiena trenez itzultzea da.

Oharra. Hainbat urte dira Lezamako trenbide zaharra bidegorri bihurtzeko asmoa dagoela, baina ez dakigu noiz bihurtuko den. Hala ere, "ibilbide basatia" egiteko aukera dugu orain. Hori bai, neguan edo euri asko egin badu, ondo prestatuta joan beharko dugu basari aurre egiteko.



Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txorierrri etorbidea, 9-4,
413. bulegoa,
48160 Derio

Telefonoa eta faxa
94 454 44 98
a.amondarain@euskalnet.net

ArtileArtean

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

Jausteko beldurrak ez zaitzala geldiarazi

65 urte edo gehiago izateak jausteko probabilitatea handitu dezake baita lesionatzeko arriskua handitu ere.

Hortaz, pertsonak adinean aurrera doazen heinean, jausteko beldurra ohikoago bilakatzen da, eta batzuek hainbat jarduera egiteari uzten diote: oinez ibiltzea, erosketak egitea, gizarte-jardueretan parte hartzea... Onuragarria da horrela jokatea? Ba al dago erorikoak prebenitzeko modurik?

Fisikoki aktibo mantendu

- **Zure gaitasun eta beharrei egokitutako ariketak** erregularitasunez egin eta muskuluetan, artikulazioetan, tendoietan eta lotailuetan hobekuntzak nabaritutako dituzu.

- **Egin itzazu indartzeko eta orekatze-ko ariketak.** Adibidez, yogak, pilatesak eta Tai Chiak oreka eta indar muskularra hobetu ditzakete.

- **Ez gutxietsi jarduera arinak.** Eskailerak igotzeak eta ibiltzeak osteoporosiak eragindako hezur-galera gutxitu dezake.

- **Erabili laguntza-gailu bat** oinez zozenezan egonkor sentitzeko laguntza behar baduzu (makilak, taka-taka, etab.).

- **Eskuak libre eduki.** Erabili zorro, poltsa edo motxila bat eskuak libre izateko eta saihestu pisu handia eramatea.

- **Erabili zapata egokiak,** oinari ondo eusten dion oinetakoa eta zola irristagaitzak, gomazkoak eta takoi baxukoak. Oinetakoa sartzea errazteko, kordoirik gabeko zapatak eta oinetakoa sartzeko gailuak erabili.


Kontuan izan zure osasun-egoera

- **Ikusmen eta entzumen-arazoak tratatu.** Betaurrekoak, ukipen-lenteak edo audiofono egokiak erabiltzeak eraketak saihesten ditu.

- **Poliki jaiki** eserlekuetatik edo ohetik. Azkarregi jaikitzeak presio arteriala jaitsi eta oreka galtzea eragin dezake.

- **Medikamentuen albo-ondorioei adi egon,** eta loa edo zorabioak eragiten badizkizu, esaiozu medikuari edo farmazialariari.

- **Ondo elikatu,** eta beharrezkoa bada, elikadura-gehigarriak hartu: kaltzioa eta



D bitamina kontsumitzea, adibidez, hezurrak sendotzeko lagungarria da.

- **Pisu osasungarriari eutsi,** erretzeari utzi eta alkohol kontsumoa mugatu, hezur-masa galerak eta hausturak ekiditeko.

Etxea leku seguru bihurtu

- **Argitasun egokia izan** eta etengailuak eskuragarri. Argi-sentsoreak instalatzea ere, aukera ona izan daiteke.

- **Gainazala irristakor bihurtzen ez dituzten produktuak erabili** zoruak garbitzeko, eta ez zapaldu zorua bustita dagoenean.

- **Pasatzeko eremuak oztoporik gabe mantendu** eta alfonbrak edukitzea ekidin. Horiek erabiliz gero, ziurtatu zoruari ondo lotuta daudela eta ez dutela irregulartasunik, zimurrik edo tolesdurarik.

- **Altzari egokituak eskuratu:** kaxoiak, armairuak, ohea, mahaiak... altuera egokian jarri, makurtzeko beharrik ez izateko.

- **Eskailera egonkorak erabili** edo laguntza eskatu leku garaietara iristeko. Aulkiak arrisksuak izan daitezke.

- **Jarri baranda altuak leku arrisksuetan** (leihoak, eskailerak, balkoiak...) eta heldu eskudelari eskailerak erabiltzen dituzunean.

Bainugelan...

- **Koskarik gabeko dutxa-platera jarri,** bainuontziaren orde. Dutzan, konke-

tan eta komunean euste-barrak jartzea eta dutxetarako eserleku bereziak erabiltzea ere lagungarria izan daiteke.

- **Jarri alfonbratxo edo itsasgarri irristagaitzak** bainuontziko edo dutxako zoruan.

- **Deshumifikatzailea erabili** eta dutxaren sarreran jarri ondo itsatsitako alfonbratxoa, ez irristatzeko.

Sukaldean...

- **Tresnak eta jangaiak eskura izaten saiatu,** bereziki sarri erabili ohi dituzanak. Lagungarria izan daiteke armairuetan argiak ipintzea.

- **Indukzio-plakak instalatzea** egokia izan daiteke, erredurak eta gas-ihesak saihesteko.

Logelan...

- **Beheko solairuan kokatzea** gomen datzen da, eta bainugelatik gertu.

- **Ohearen altuera egokitu,** altuegia zein baxuegia izan ez dadin. Oheratzeko eta jaikitzeo, ohe elektrikoak gomendagarriak izan daitezke.

Telefonoa beti eskura izan

- **Zure telefonoan** konfiantzako pertsonaren baten telefono zenbakia **markatze azkarraren bidez deitzeko aukera izatea** lagungarria izan daiteke, baita laguntza eskatzeko lepoko edo eskumuturreko bereziak izatea ere.



2024ko aurrekontuak, premiei erantzuteko

Abenduaren 18an, Osoko Bilkurak 2024ko ekitaldirako hiru aurrekontu onartu zituen: Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearena, "Txorierriko Udal Euskaltea" erakunde autonomoarena eta EGAZ Txorierrarena.

Hauek dira 2024an bete nahi diren helburuak:

- Hondakinen bilketa, bide-garbiketa eta argiteria publikoaren zerbitzuen % 3,71ko igoerari aurre egitea, 6.520.657,32 euroko aurrekontuarekin.

- Lehen mailako gizarte-laguntzaren zerbitzua hobetzea 100.000 eurotik gorako igoerarekin (% 7,10), ongintza- eta asistentzia-arretak, etxez etxeko laguntza-zerbitzua eta gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze eta arreta psikologikoko programak handitzeko, 1.569.172,78 euroko aurrekontuarekin.

- Berdintasun-plana garatzea eta genero-ikuspegia udal-esparruetan txertatze-

ko lan egitea, partidari % 50eko igoera eginez.

- Enplegua zeharkako ikuspegi global batetik sustatzen jarraitzea, gazteen prestakuntza eta lana bereziki azpimarratuz.

- Euskararen erabilera eta ikuskuntza sustatzea, aurrekontua % 10,3 igoz, baita TOTOAN elkarteari ere, guztira 230.381 eurora iritsiz.

- Adikzioen eta osasuna sustatzeko plana garatzen jarraitzea.

- Langileen gastuen gehikuntzari aurre egitea, langileen ordainsarien gehikuntzaren aurreikuspenagatik eta plantillaren igoeragatik, % 2,50eko igoera eginez, 2024rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak ezartzen duen bezala.

- Euskaltegirako egoitza berria egitea eta Mankomunitatearen egoitza handitzea.

	2023 URTEA	2024 URTEA	IGOERA
Mankomunitatea	9.740.697,06	10.184.209,43	% 4,55
Udal Euskaltea	729.269,66	808.280,98	% 10,83
EGAZ Txorierrri	781.950,41	808.280,98	% 5,85

Beharginak beharrera

Lana egunero darabilgun berba horietakoa dugu. Mendebaldean *beharra* esaten diogu eta Euskaltzaindiaren hiztegiak ere badakar; hiztegi horretan, *behar* sarreran, lehen adiera nagusi hau topatuko dugu: "nahitaezko den gauza", baina baita beste hau ere: "Bizk. Lana, egitekoa". "Bizkaiera" marka du euskalki horretan erabiltzen delako, baina txorierritarrok batuaz egiten dugun ere lasai-lasai erabil dezakegu. Izan ere, bada sasoia bertako berbak erabiltzeko, konplexu barik. Sail bereko berbak berdin-berdin erabil ditzakegu: *behar egin* 'lan egin', *behargina* 'langilea'. Ahoz lekuan lekuko aldaerak erabiltzen dira, Sondikan *behar in* entzungo dugu, Larrabetzun *behar in* eta Zornotzan *bier ein*. Baten batek pentsa lezake aldakortasun horrek zaildu egiten duela gure hizkuntza, baina, egia esan, aberastasun horrek, zabalago eta ederrago egiten du euskara, koloretsuago.

Euskaltzaindiaren hiztegian, behar-bada hain ezaguna ez den berba hau ere topatuko dugu: *behargintza*. Esanahia? 'Lanbidea, egitekoa'. Adibide argigarri hau jasotzen du hiztegiak: "Ikasi behar duzu behargintzaren bat, zer jan izateko".

Urte hasiera honetan, behar kontuak berba ditugula, Amoroto herriko Irarreta baserriaren ateburuan irakur daitekeen inskripzioa (1754koa) etorri zaigu burura: "eguiten badoc bierra, jango doc ogia".



Txorierriko berdintasuneko plana 2024an jarriko da martxan


Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak eta bera osatzen duten sei udalek azken urteetan egindako lanari jarraipena ematen jarraitzeko, hurrengo lau urteetarako (2024-2027) estrategia eta bide-orria ezarri dira.

Txorierriko Berdintasunerako planak guztira 4 urteko iraunaldia izango du, 2024ean abiatu eta 2027ra artekoa. Planak Mankomunitateko zein hura osatzen duten sei udalari helburu estrategikoak jasotzen ditu, hauek berdintasun politiken norabidea, ortzi-muga zabala jasotzen dute. Hau da, Mankomunitateak zein udalerrri guztiek batera berdintasun politiketan au-

rrera egiteko estrategia komuna. Helburu estrategiko horiek betetzeaz gain, denek norabide eta zoru komun bat eratzea ere bada. Gauzak horrela, helburu operatiboek erantzuten diote lau urtetan erantzun nahi diren erronkei,

egingarriak eta urte gutxitan garatzeko aukera ematen dutenak hain zuzen.

Planaren antolaketa egiteko, urtero Mankomunitateak zein udalerrri bakoitzak kudeaketa-planak diseinatu dituzte.



“Datuak ez dira dogma bat, beste euskarri bat baizik”

IÑIGO ZARATE MADARIAGA | Datu-analista

Larrabetzun bizi den lezamarrak Athletic Klubean lan egiten du jokalarien jokoari buruzko datuak aztertzen. Milaka aldagai eta testuinguru kontuan hartzen ditu, eta horrela, datu objektiboak eskaintzen dizkio zuzendaritza-taldeari, erabakiak hartzen laguntzeko. Egunaren ordu gehien datuen eta estatistiken artean ematen badu ere, pozik dabil, lana eta zaletasuna –futbola– uztartzeko aukera du eta.

a: Nahia Coello

Zein da datu-analistaren lana?

Futbol-partida batean milaka datu gertatzen dira: alde batetik, zenbat pase, baloia kontrolatzea, baloia berreskuratzea...; eta beste aldetik, datu fisikoak, hau da, futbolari batek zenbat metro egin dituen, zein erritmotan eta abiaduratan, zein egoeratan... Horiek guztiak datu objektiboak dira eta testuinguruan ipini behar ditugu. Adibidez, erabili ahal ditugu partida osteko analisia egiteko, aurkariaren analisia egiteko edo *scouting*erako. Demagun klubak jokalaria bat fitxatu nahi duela, bere jokatzeko modua gustatzen zaiolako; bada, hori zerbait subjektiboa da, eta datuak lagungarri izango ditu bere asmoa indartzeko edo datu objektiboek beste gauza bat esaten dutela kontuan hartzeko.

Beraz, datu-analisiak egiten dion ekarpena ukazina da.

Gu ez gara etorri lehendik eginda dauden analisi subjektiboak aldatzera, indartzera baizik; are gehiago, nire ustez, alde subjektiboa eta datuen analisia guztiz osagarriak dira. Adibidea ipiniko dut azaltzeko. Jokalari batek 20 gol sartu ditu, baina galdera hau da: 20 golak sartzeko aukerarik izan du? Bere errendimenduen gainetik dago? Hori estatistikaren bidez jakin dezakegu: zenbakien arabera, 15 gol sartu behar zituen, baina 20 sartu ditu; beraz, bere errendimenduen gainetik dago. Datuen analisiak gero eta zutabe garrantzitsuagoa du futbolean, aurkakoak ere badituen arren...

“Futbol-partida batean milaka datu objektibo sortzen dira eta testuinguruan ipini behar ditugu”

Aurkakoak?

Bai, izan ere, futbol-partida batean kanpoko faktore askok dute eragina: fisikoek, psikologikoen, beste futbol-talde baten aurka jokatzeko delak, kanporaketarik egon daitekeela... Hortaz, konparaketak egiteko edo analisiak egiteko orduan, aldagai horiek ere kontuan hartu behar dira.

Zein datu hartzen duzue kontuan gehienbat?

Taldearen datuak baliagarriak dira taldeak alderatzeko edo gure metrikaren arabera sailkapena egiteko; adibidez, gerta daiteke paseen gaineko informazioa nahi izatea, baina testuinguru jakin batean. Datuak batez ere oso baliagarriak dira jokalariei jarraipena egiteko, gure jokalariei zein merkatuan dauden beste jokalariei, eta ikusteko gure jokatzeko modura hobekien nor egokitu daitekeen. Datu fisikoei lotutako informazio handia ere sortzen da...

“Alde subjektiboa eta datuen analisia guztiz osagarriak dira”

Partiduetan txaleko bat jantzita ikusi ditzakegu jokalaria asko, zertarako da?

Txaleko horrek errendimendu-datuak ematen ditu: jokalariek zenbat metro egin dituen, zein abiaduratan, egin dituen esfortzu maximoak, azelerazioak, dezelerazioak... Gaur egun, ohikoa da jokalariek txaleko hori janztea, bai jokatzeko, bai entrenatzeko.

“Taldearen datuak baliagarriak dira taldeak alderatzeko edo gure metrikaren arabera sailkapena egiteko”

Hasieran esan duzu futbol-partida batean milaka datu sortzen direla.

Ezin da zenbat diren zehaztu. Neuritzen dira jokalaria guztien paseak, *tackling*ak, baloi berreskuratzen... Baita euren errendimenduetan zerikusia dutenak ere, eta horiek, gainera, kontaezina dira. Bestalde, futbol-munduan ate berri bat zabaltzen ari da: *trackinga*. Zer da? Segundo bakoitzean, zati bakoitzean, jokalaria guztiak non dauden jakitea. Ondorioz, ezin da zifra zehatzik eman.



Gaur egun, zein alderdiri egiten zaio kasu handiago: subjektiboari ala datuen analisiari?

Lehenengo eta behin, argi utzi behar da alde subjektiboa ezin dela inoiz aldatu. Talde baten jarraipenaren ondorioz dator, eta, beraz, pisu handia du. Gure lana da hori sendotzea; hau da, ikuspegi subjektiboa datuekin kontrastatzea eta, horren arabera, analisi sendo bat egitea. Azkenean, talde bakoitzak bere jokatzeko era du, eta metrika egokienak aurkitu behar ditu horretarako. Metrikei garrantzi handia ematen zaien arren, bi alderdiak hartu behar dira kontuan.

“Helburua da ikuspegi subjektiboa datuekin kontrastatzea eta, horren arabera, analisi sendo bat egitea”

Aurkakoan datuak ere aztertzen dituzue?

Hori ez da nire eginkizun nagusia, baina bai, lantalde batzuek aurkakoan datuak ere aztertzen dituzte. Nolanahi ere, datuak bakarrik goi-mailetan daude eskuragarri.

Eta interpretatu beharko dira.

Hori da garrantzitsuena, nire ustez. Talde guztietan, edo gehienetan, bi profil topa daitezke: alde batetik, datuak fidelki interpretatzen dituztenak eta, hortaz, bakarrik datuek esaten dutenari erreparatzen dietenak; eta beste aldetik, futbolari buruzko ezagutza handiagoa dutenak eta datuetatik haratago joaten direnak. Nik azken profil horretan kokatzen dut nire burua, izan ere, futbol-analisiari buruzko ikastaro asko egin ditut; asko gustatzen zait futbola ikustea eta aztertzea. Nire iritziz, bi profilak bateragarriak dira, eta uzartu beharrekoak.

Txostenik, grafikorik... egiten da?

Bai, txostenak beti egiten dira, eta haietan grafikoak sartu. Hala ere, niri grafikoak beste modu batzuetan adieraztea gustatzen zait; esate baterako, zelaia bera grafikotzat hartuta. Nik futbol-analisia eta datuak batera erabil-



tzen ditut, eta, ohiko grafikoez gainera, adierazle bisualak ipintzea gustuko dut –atea edo zelaia erabilia–, pentsatzen dudalako horrela datuak futbolaren testuinguruan errazago ulertzen eta barneratzen direla.

Datuak edozein gauzatarako erabili ohi dira? Partidaren estrategia definitzeko? Nortzuek jokatu duten erabakitzeke? Entrenatzailea kontratatzeke?

Zaila da horri erantzutea. Nire lana ez da analisiak egitea, baizik eta zuzendaritzaren eragiketeei datuen birtartez erantzuna ematea. Behin Monchi kirol-zuzendari ospetsu bati hau entzun nion: “Nik ez dut datuek esaten didatelako fitxaketarik egingo, baina ez dut datuak begiratu barik fitxaketarik

egingo”. *Big data* futbolaren etorkizuna da: ez jokalarri hau edo bestea datuen arabera fitxatuko duzulako, baizik eta arriskua murrizten duelako eta erabakiak hartzen laguntzen digulako. Nire ustez, hori da jarraitu beharreko filosofia; datuak ez dira dogma bat, beste euskarri bat baizik. Edozein erabaki hartzeko, alde subjektiboaz zein objektiboaz baliatu behar dugu.

“Big data futbolaren etorkizuna da, arriskua murrizten duelako eta erabakiak hartzen laguntzen digulako”

Noiztik erabiltzen da datuen analisia futbolean?

Analista taktikoak aspalditik dabil-tza, baina duela bospasei urtetik hona oso industria indartsua sortu da datuen inguruan. Partida batean taktikari lotu-tako 30.000 datu inguru sortzen dira, baina azken hamarkadan gainerako ar-loei lotutako datuak aztertzen hasi, eta askoz datu gehiago sortzen dira. Eta adimen artifizialaren eta trackingaren eskutik bilakaera izugarria izango da eta askoz aldagai gehiago ezagutu eta aztertu ahalko dira.

"Adimen artifizialaren eta trackingaren eskutik bilakaera izugarria izango da eta askoz aldagai gehiago ezagutu eta aztertu ahalko dira"



a. Pexels

Ekin eta ekin 35 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.



**TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA**



XII. Tostada lehiaketa

Otsailaren 8an, eguena
Derioko Kultur Birikan

Izen-ematea: bertan, 10:00etan eta 18:30ean

Aurretik, **BERBALDIA** (doako sarrera):

"Aroa: zero kilometroko berbak eta esakerak erabiltzeko gomendioak"

KEPA DIEGUEZ

Etnometeorologoa eta Getxoko Udala Euskaltegiko irakaslea

ERDU ETA OSPATU GEUGAZ EGUEN ZURIA!



Big data gelditzeko ailegatu da futbol-mundura?

Bai. Izan ere, lehen esan dudanez, oso zutabe subjektibo garrantzitsu bat dugu futbolean, eta datuek hura sendotu edo zalantzan jarriko dute. Erabakiak hartzeko orduan, zenbat eta ziurgabetasun gutxiago eduki, askoz hobeto.

“Datuek alde subjektiboa sendotu edo zalantzan jarriko dute”

Kirol guztietan erabiltzen da datuen analisia?

Bai, kirol nagusi guztietan erabiltzen da. Estatu Batuetan, adibidez, kirol guztietan erabiltzen dute aspalditik, eta, bestalde, munduko futbol-klub batzuek –Toulouse, Brentford...– eredu aurreratuak dituzte eta ez doakie txarto. Tenisean erabiltzen da, txirrindularitzan ere bai...

Hortaz, inportantea da pertsonak arlo honetan trebatzea.

Bai, eta pentsatzen dut jende asko horretaz ohartu garela. Hori dela eta,

“Datuen analisia kirol nagusi guztietan erabiltzen da”

lagun asko dabilta arlo honetan trebatzen, hainbat profil beharrezkoak dira eta: algoritmo matematikoetan trebeak diren pertsonak behar dira, datuak zelan gorde eta zelan berreskuratu dakitenak, hornitzaileekin harremanetan daudenak...

Ametsari eutsi nahi

Hogeita hamahiru urteko lezamarra da Iñigo Zarate Madariaga, Larrabetzun bizi dena. Ingeniari informatikoa da, eta oso futbol-zalea, Athletic-zalea. “Futbola ikustea betidanik gustatzen zait, edozein partida ikustea, gainera. Izan ere, partidetan sortzen diren mugimenduek atentzioa ematen didate: azken finean, futbol-partidak eta xake-partidak antzekoak dira”. Futbol-analista moduan trebatu zen, eta informatika arloan lanean hasi bazen ere, laster konturatu zen beste pausu bat eman zezakeela. “Matematika asko gustatzen zait, eta ohartu nintzen datuen mundua ere asko gustatzen zaidala. Beraz, pentsatu nuen horren inguruan zerbait egitea eta animatu nintzen *big data*, adimen artifiziala eta kirola batzen zituen master bat egitera. Pitika-pitika industria hau ezagutzuz

joan nintzen, eta nire aukera zela erabakien: informatika arloko ezagutza dut, futbol-ezagutza ere bai, eta datuen munduan hobetuz joango naiz, mundu berria da eta”.

Zamudion entrenatzaile eta laguntzaile ere ibili da. “Ez nuen eguneroko lana hain atsegin, iruditzen zitzaidalako gauza eta pertsona asko kontrolatu behar direla. Esan moduan, niri benetan gustatzen zaidana da partidak aztertzea, eta konturatu nintzen ibilbidea beste bide batetik egiten saiatu behar nuela. Eta beitu, non eta Athleticen instalazioetan gaude momentu honetan. Garai hartan ez nuen pentsatzen hemen izango ninWtzenik... Hara!”.

Masterreko praktikak Athleticen egin zituen Zaratek. Aitortu digu Athleticen lan egitea dela egia bihurtutako ametsa. “Zaletasuna eta lana batu ditut eta gustatuko litzaidake hemen ibilbide polita egin ahal izatea. Honi eustea ametsa izango litzateke”.

Euskalduna eta euskaltzalea ere bada, eta esan digu Lezamako instalazioetan euskara asko entzuten dela eta horrek asko pozten duela. “Nire egunerokotasunaren zati handi bat euskaraz egitea sano inportantea da. Harritu nauen gauza ere izan da, pentsatzen nuelako ekosistema honetan gaztelania nagusi izango zela. Euskara asko egiten dut lanean eta nortasuna mantentzeko modua da”.



Antzinako lanbideak Lezaman eta Larrabetzun

Testua: Raúl Bañuelos / Iturria: Anuario
comercio e industria (1899-1931)

Industrializazioaren aurretik, familia askoren sostengu nagusia nekazaritza eta abeltzaintza ziren hainbat herritan, hala nola Lezaman eta Larrabetzun. Beraz, garai bateko lanbide asko landa-eremuarekin lotuta zeuden. Baina, beharbada, gutxiak dakite herri horietan beste lanbide eta negozio batzuk ere izan zirela, gaur egun gutariko askorentzat ezezagunak direnak.

Industria

1903an, Lezaman sei irin-erota zeuden martxan, eta 1907an, beste zortzi errota Larrabetzun. Lezaman harria ustiatzen zuen, eta 1903an harlanduzko harrizko hiru harrobi izan zituen jardunean; Larrabetzuk, berriz, egurra ustiatzen zuen, eta zerrategiak eta zurezko biltegiak zituen. Gainera, hainbat errementeria, aroztegi eta saski- eta egur-fabrika ere ageri dira bi herrietako inbentarioan. Apagarria da, bestalde, Larrabetzuk 1907an ospitale zibila zuela.


Antzinako lanbideak

Lanbide batzuk erabat sustraituta zeuden, esaterako, errotariena, zeinak uraren indarraz baliatzen baitziren zereal-aleak ehotzeko (irin-errotak) eta zerratzeko (zurgintza-tailerrak). Era berean, oso deigarriak dira hain ohikoak ez ziren lanbideak, hala nola saskigileena, lezamarren artean 1929-1931 bitartean oso hedatuta izan zena, eta harlanduzko lanei lotutakoa, gutxiago egiten zena. Horiek artisauro-lanbideak ziren eta gurasoengandik seme-alabengana transmititzen ziren. Garai hartako gainerako lanbideetan topatu daitezke abere-tratulariak, ardogileak, ale- eta zahi-biltegiainak (landa-eremuarekin lotutakoak), kanpai-joleak, botikariak, albaitariak eta aguazilak; lanbide horiek guztiak ezinbestekoak ziren herri guztietan.

Dendak

1929 eta 1931 bitartean, bi herrietan janari-denda ugari ireki ziren, ostatuak (tabernak), bazkari-etxeak, mertzeriak eta bizartegiak (4-5 denda herriko). Horrezaz gainera,

zapata- eta abarketa-dendak zeuden, baita kinkila-dendak eta estankokak ere. Horrek guztiak adierazi nahi du Lezaman eta Larrabetzun ekoizpen eta jarduera ekonomiko bizia eta garrantzitsua zegoela, biztanle gutxi zituzten arren.



LASARTE

HORTZ KLINIKA

Padi, Inplanteak, Ortodontzia,
Hortz estetika, Peridontzia

📍 Alkatasuna kalea 5, Mungia

☎ 946 020 020 📱 @lasartehortzclinika



HORTZ KLINIKA

LASARTE
SALUD Y ESTÉTICA DENTAL

SALUD Y ESTÉTICA

Udalek 2024ko aurrekontuak onartu dituzte

Urteberriarekin batera, Txorierriko Udalek iragarri dute aurten izango dituzten aurrekontuak. Hurrengo orrialdeetan udal bakoitzaren aurrekontuen lerro eta inbertsio nagusiak jaso dira.

Derio

Deriok 11,7 milioi euroko aurrekontua izango du 2024rako; iaz baino % 6,5 gehiago. Derioko Udalak zabaldu duenez, gastuen atalari dagokionez, "2024ko kontuetan ere igoera bat ikusten da zenbatekoan, ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuaren 2023ko aurrekontuarekin alderatuta. Hazkunde hori ekonomiaren inflazio-joeraren ondorioa da, eta zuzenean eragiten du berrikusi daitezkeen zerbitzu kontratatuetan. Aipatzekoa da udala garbiketako, lorezaintzako, azpiegituren mantentze-lanetako eta zerbitzu publiko eraikinetako zerbitzuak etengabe hobetzeko eta baliabideak handitzeko egiten ari den lana; baita gizarte-, kultura- eta kirol-zerbitzuak eta derioztarren eta haien ongizatearen aldeko zuzeneko zerbitzuak ere". Azaldu moduan, "udal-lan-gileei udal-zerbitzuak eraginkortasunez ematea ahalbidetuko dien egitura finkatzeko apustu estrategikoari eusten zaio. Era berean, pertsona behartsuenentzako eta herriko gizarte-, kultura- eta kirol-sare osoarentzako dirulaguntzak mantenduko dira".

Derioko Udalak 889.400 euroko dirupartida zuzenduko du inbertsioetara. Oposizioarekin lortutako akordioaren artean, proiektu hauek nabarmendu dituzte: oinezkoentzako pasabideak egokitzea, 50.000 euro (PSE-EEren proposamena); Taileri kaleko zoladura hobetzea, 40.000 euro (EH Bilduren eta PSE-EEren proposamena); kanpoko frontoiaren zorua hobetzea, 30.000 euro (EH Bilduren proposamena); kiroldegiko sarreraren markesina bat eraikitzea, 5.000 euro (PSE-EEren proposamena); eta igerilekuetan zuhaitzak landatzea, 2.000 euro (PSE-EEren proposamena). Proiektu horiei aurrekontuen



a: Freepik

partaidetza-prozesuan sortutako beste hiru ekimen gehitu behar zaizkie. "Guztira 104.000 euro bideratuko dira hauek gauzatzeko: estalitako kirol-kantxan alboko itxiera, 80.000 euro; txikipark bat sortzeko bideragarritasunaren azterketa, 18.000 euro; eta radar pedagogiko berriak jartzeko udalerriko hainbat tokitan: 6.000 euro".

Larrabetzu

Larrabetzuko Udalak jakinarazi duen moduan, 3.331.480 euroko aurrekontuak izango ditu aurten; iaz baino % 1 gehiago. Udalaren esanetan, 30.000 euro zuzenduko dira 65 urtetik gorakoentzako bi proiektutara, eta % 20 igoko da Gure Etxearen dirulaguntza. Kultura- eta kirol-elkartentzako dirulaguntzak ere % 20-30 igoko dira, eta Udalbiltzaren Geuretik Sortuak egitasmoa babesten jarraituko da. Eskolaren mantenura 40.000 euro bideratuko dira, eta 15.000 euro, patioa konpontzera. Eskolan jarraituko da Gym Berdea eta

hezkidetza-egitasmoak babesten, eta guraso-elkartearen dirulaguntza % 66 igoko da: 15.000 euro. Halaber, 37.000 euro bideratuko dira memoria historikoa berreskuratzeko proiektuetara, eta 2.500 euro, kirolbilgunera. Olarreta pilota elkarteari hitzarmena sinatuko da, pilota-eskolara 11.000 euro zuzendu.

Emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzeko herri-ekimenak babestuko ditu udalak, eta udaletxean bertan aukera-berdintasunen plangintza egingo da. Ingurumenari dagokionez, 10.000 euro bideratuko dira energia berri tagarrien komunitate energetikoa sortzeko egitasmoa; 2.500 euro, landare inbaditzaileak kentzera; eta 3.000 euro zabor organikoa batzeko sistema hobetzera. Udalaren hitzetan, 3.000 euro ipiniko dira etxebizitza eskuratzea errazteko ekintzetarako, eta 8.000 euroko laguntza emango zaio Kulturbilguneari. Ludotekarako eta umeen aisialdirako diru-partida % 40 han-



dituko da, eta euskararen erabilerako plan estrategikoa ipiniko da martxan. Berritasun moduan, 15.000 euro bideratuko dira zaintza kolektiboaren egoeraren diagnostikoa egitera. Horrezaz gainera, 390.462 euro zuzenduko dira hainbat proiektutara: besteak beste, eskolako azpiegiturak eta haurreskolako jolas-eremua hobetuko dira, basoak erosi, kultura-azpiegiturak hobetu, eta oinezkoentzako guneak atontzeko eta auzoak hobetzeko lanak egingo dira.

Azalduenez, diru-sarreraren % 56 Udalkutxatik dator; % 32, herriko zerga eta tasetatik; eta % 11, dirulaguntzetatik. Gastuen % 22 langileei dagokie; % 23, Mankomunitateak kudeatzen dituen zerbitzuei; eta % 7,3, herriko taldeentzako laguntzei. Gastuen % 34,7 finakoak dira; % 12 udal-inbertsioetarako eta egitasmorako dira; eta % 1, mailegurako.

Lezama

Lezamako Udalak, bestalde, 3.358.736,29 euroko aurrekontuak onartu ditu. "Iazko aurrekontuekin alderatuta, % 11,4ko igoera egon da" adierazi dute. "Hazkunde hori, gehienbat, diru-sarrera zuzenak (+ % 116,67) eta ondare-sarrerak (+ % 166,09) areagotzearen ondorioa da".

Azaldu moduan, gobernu-taldeak 317.000 euro bideratuko ditu Lezama eta herritarren bizitza-kalitatea hobetzeko proiektuetara. "Hasteko, 84.700 euro erabiliko dira Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria egiteko. Inbertsioekin jarraituta, Mikel Zarate plazaren inguruan (114.300 euro) eta Kurtze eta Iberre eta auzoetako espalioen irisgarritasuna (78.000

euro) hobetuko dira. Dirulaguntzetarako diru-partida ere handituko da, % 6,99, eta guztira 170.010 eurokoa izango da. "Besteak beste, 134.210 euro banatuko dira herriko elkarten artean; 8.000 euro bideratuko dira Txorierriko kiroledegietan abonatuentzako dirulaguntzetara; 2.500 euro, putzu septikoen garbiketa diruz laguntzera; eta 3.000 euro, Mikel Zarate Literatura Sarirako".

Era berean, Txorierriko Zerbitzu Mankomunitaterako ekarpena % 6,13 han-

dituko du, "berebiziko garrantzia duten zerbitzuak hobetu eta bermatzeko, esate baterako, kaleko argiztapen eta garbiketa, euskara eta gizarte-zerbitzuak". Beste aldetik, eta batzuk aipatzearen, 75.000 euro bideratuko ditu gizarte- eta kultura-ekitaldietara eta UDA programara; 84.284,83 euro, udal-ekipamenduetara; 31.460 euro, udal-liburutegira; 70.000 euro ikastarotara; eta 12.000 euro, Berdintasun arlora. Partaidetza bidezko aurrekontuei dago kienez, 90.000 euro zuzenduko ditu lezamarrek aukeratutako egitasmoak egitera.

Loiu

Loiuk 5,2 milioi euroko aurrekontua izango du. "Aurrekontuek % 2,65eko igoera izango dute aurrekoekin alderatuta, eta gizarte-laguntzetarako diru-partida nabarmen handituko da", idatzi du Josu Andoni Begoña alkateak bere webgunean. Begoñaren hitzetan, aurrekontuei esker inbertsioak egin ahalko dira udalerriko auzoetan. Inbertsio horien artean aipatzekoak dira Zabaloetxeko errotondak, Lauroetako haurreskolaren inguruan egin beharreko urbanizatzetarako, Zabaloetxeko eta Larrondoko gimnasioak, Ariztondo-Txiline sektorea berriro partzelatzea babes ofizialeko etxebizitzetara, La-





rondoko Gaztelekua, III. Enplegu Plana eta kultura eta kirola dinamizatzeko plana.

“Helburua Loiu erakargarri, moderno eta jasangarri baten alde lan egiten jarraitzea da”, idatzi du Begoñak. “Hala ere, euste-aurrekontuak ere badira, nazioarteko egoera eta datu makroekonomikoei lotutako ziurgabetasuna direla eta. Hortaz, lehenengo eta behin pertsonen alde egiten dugu, herritarren oinarritzko beharrianak betetzeko. Izan ere, gizarte-laguntzeta-rako diru-partida handituko dugu Manko-

munitatearen eta enplegu-planen bidez, herritarrek eskatzen dituzten proiektu estrategikoak ahaztu barik”. Bestalde, iragarri du elkarre guztientzako dirulaguntzak % 50 igoko direla, eta euskararako, emakumeenganako eta berdintasunerako diru-partida ere handituko dela.

Sondika

Sondikako Udalak 6.890.000 euroko aurrekontuak onartu ditu. Aurrekontuei esker hainbat inbertsio egin ahal izango

ditu. Esaterako, kirol-bonua aterako du 18 urtetik 26 urtera bitarteko gazteentzat, herriko kiroldegietan gazteen kirola sustatzeko, eta auzotaxi-zerbitzua ipiniko du martxan, herriko auzoetan bizi diren adinekoentzat. Kulturara zuzendutako aurrekontua ere handituko da, besteak beste, Kultura Etxean antzezlanak eta bestelako ekintzak egiteko, eta kalean ere kultura-ekitaldiak antolatuz.

Era berean, diru-partida bat zuzenduko da udala erdigunera hurbiltzera, eta hortaz, herriguneari sondikoztarrei arreta egiteko gune bat ipintzera; eta datozen lau urtean Goronda Beko kiroldegiko makinak berrituko dira. Azkenik, Sondika eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko helburu duten beste diru-partida batzuk ere sartu dituzte aurrekontuetan; adibidez, kaleko liburutegiak eta jolas inklusiboak, Irigarritasun-Plana eguneratzea eta gauzatzea, elektrolindegiak ipintzea eta udal-eraikinetan hobekuntzak egitea.

Zamudio

Zamudiok 8.994.570 euroko aurrekontua izango du aurtengo ekitaldirako. Udalaren esanetan, “gastuek eta sarrerek





udal-zerbitzuak bermatuko dituzte”, eta hauek azpimarratu ditu: digitalizazioa, errepideak, udal-eraikinak eta instalazioak mantentzea eta hainbat adin-tarteko biztanleentzako zerbitzuak, hala nola kultura-ikastaroak eta umeentzako eta gazteentzako programazioa.

Diru-sarrerari dagokienez, “pandemiak baldintzatutako urteen ostean, egoera ekonomikoa orekatu da eta aurreikusiten da Eraikinen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergatik etorritako aurtengo diru-sarrerak eta iazkoak antzekoak izatea”, esan du Zamudioko Udalak. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergen esparruan, 2.172.000 euroko sarrera espero du; 1.404.000 euro, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergatik; eta 329.000 euro, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergatik. Udalkutxatik 2.738.000 euro jasoko ditu.

Gatuen atalean, % 9,56 handitu da langileen diru-partida, “Enplegu Planaren eta Lehen Esperientzia programaren

bidez gazteak kontratatuko dira eta”. Egitasmo biak diruz lagunduta daude, eta udalaren hitzetan, “gazteak laneratzea

bultzatuko da, udal-ekonomiako baliabideen eraginkortasuna bermatuta”. Lehen Esperientzia programaren bidez, Europar Batasuneko Next Funtzen barnean, arkitecto gazte bat eta administrazio orokorreko teknikari gazte bat kontratatuko dira 12 hilabetean, % 100eko jardunaldian. Enplegu Planaren bitartez, bi administrazio-laguntzaile eta peoi bat kontratatuko dira 12 hilabetean, % 75eko jardunaldian.

Beste alde batetik, ohiko gastuak % 5,55 murriztuko direla azaldu du. “Mantentze- eta konpontze-lanak egin ondoren aurreikusi da eraikin eta azpiegiturak mantentzeko diru-partida iaz baino txikiagoa izango dela; guztira 318.000 euro”. Halaber, espero du udal-eraikinen elektrizitate-energien kontsumorako diru-partida % 22,99 jaitea (-49.200 euro) eta gas-horniketarako diru-partida % 46,25 handitzea (+300.200 euro). Benidormeko bidaiaren aurrekontua, azkenik, handiagoa izango da: 136.000 euro. Udalak adierazi du urtean zehar beharrezkotzat jotzen diren inbertsioak egingo direla.



EL PUNTO BOBO
España Creativa

Iturrigane 1 - Sondika
Tel. 946 855 612 - 699 133 157
info@elpuntobobo.com - www.elpuntobobo.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Txorierrri et., 46
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Sondigarbi GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00

ERDU ETA

MATRIKULATU

DERIOKO ESKOLA

matrikula@deriokoeskola.com

Tel.: 944 541 246

Eskola euskalduna da gurea, eta bertan ikasleen aniztasuna eta inklusibitatea hartzen ditugu kontuan. Bizikidetzaren positiboaren alde egiten dugu lan, eta herritar kritikoak eta arduratsuak hezten ditugu. Era berean, ikasleen gaitasunak eta sormena bultzatzen ditugu, eta hainbat egitasmo jorratu, hala nola Normalkuntza, Ortua, Bertsolaritza, Bidelagun, Eusle, Digiplana, Hezikidetzaren eta Elkarbizitza. Gainera, irakurketa- eta idazketa-estrategiak garatzen ditugu hainbat ekintzaren bidez, eta Derioko udalarekin batera Eskolara Lagunekaz proiektuan parte hartzen dugu.

Bestalde, eskolako sukaldetan bertan prestatzen da ikasleen bazkaria, eta, gurasoen elkarteak antolatuta, goizeko harrera-zerbitzua eskaintzen da 07:30etik 09:00etara, eta askari-zerbitzua, 16:00etatik 17:00etara. Horrez gain, eskolaz kanpoko ekintza-sorta zabala izaten da eguerdian eta arratsaldean.



LEZAMA KO ESKOLA

Eskola euskalduna eta gertukoa da gurea, ingurune naturalean kokatua, eta elkarbizitza positiboa bultzatzen dugu. Era berean, ikasleen beharrezkoak egokitzeko gara arreta indibiduala eskainiz, hizkuntzen trataera integratua landuz eta ikasleak etorkizuneko gizarterako prestatuz.

Familien kontziliazioa errazteko 08:00etatik 09:00etara goztiarren gela dago, eta arratsaldean eskolaz kanpoko ekintza zabala eskaintzen da. Jantoki-zerbitzua dugu, eta autobus-zerbitzua inguruko auzoetatik.



lezamakoeskola@lezamakoeskola.com

Tel.: 944 555 119



LARRABETZUKO ESKOLA

zuzendaritza@larrabetzukoeskola.eus

Tel.: 944 287 860

Ikasle bakoitzaren beharrietara egokitzen gara, umeak beti erdigunean ipintzen ditugu eta. Eskola inklusiboa da gurea, eta patio eta gune biziak sortzen ditugu etengabe. Era berean, hainbat egitas-motan gabiltza murgilduta, hala nola Eleaniztasuna Proiektua (euskara ardatza dela 3 hizkuntza ikastea), IkasLab, STEAM, Emozio-tailerrak eta Hezkidetzak.

Bestalde, ikasleen bazkaria gure sukaldetan bertan prestatzen da, eta ortua dugunez, landatzen ditugun sasoiak produktua zuzenean joaten dira sukaldara. Gainera, auzoari zein herriari zabaldua dagoen eskola dugu, eta gurasoek eta udalak parte-hartze aktiboa dute bertan. Otsailaren 6an, 15:00etan, informazio-bilera egingo dugu IkasLab gelan. Erdu!



ZAMUDIOKO ESKOLA



Gure balioak dira elkarbizitza, inklusibitatea, errespetua, euskara, berdintasuna eta jasangarritasuna. Eskaintzen ditugun zerbitzuen artean aipagarriak dira gela egonkorra, ikasleak goiz hartzeko gela eta errefortzu linguistikoa. Gainera, igeriketa-ikastaroa egiten da Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleentzat, eta ingelesa irakasten da 3 urtetik aurrera. Pantaila digitalak ditugu ikasgela guztietan, eta *chromebook*-ak, Lehen Hezkuntzako 2. mailatik aurrera.

Eskolako beste guneak dira gimnasioa eta psikomotrizitate-gela, baratza, musika-gela, gela sensoriala, laborategia, matematika-txokoa eta jantokia. Era berean, jolastoki zabalak ditugu ikasleek aisialdia pozik emateko, eta familiekin eta herriarekin gabiltza elkarlanean.

eskolazamudio@gmail.com

Tel.: 944 520 826



TXORIERRI INSTITUTUA BHI



zuzendaria@txorierribhi.com

Tel.: 944 287 920

Euskara eta euskal kulturaren oinarritutako hezkuntza-proiektu berritzaile eta eleanitza da gurea. Gune eta instalazio berriei esker, ikasleei baliabiderik egokienak eskaintzen dizkiegu kompetentzietan oinarritutako hezkuntza-proiektuarekin ekiteko. Hautazko eskaintza zabalak eta maila bakoitzean arloren bat gutxienez ingelesez lantzeko aukera ere badute ikasleek.

Bestalde, ikasle eta familiekiko gertutasunak ahalbidetzen digu ikasleen jarraipen estua eta aniztasunari erantzun egokia ematea. Herrien arteko lotura, elkarbizitza eta giroa arrakastatsua sustatzen da ikastetxean, ikasleen ongizatea eta garapen integrala erronka izanik.

Txorierrri BHI ezagutzera emateko asmoz, Txorierrriko eskoletan familientzako aurkezpen-saioak eskainiko ditugu otsaila hasieran. Eskoletako zuzendaritzak bidaliko dizue bilerekin buruzko informazioa.

KZgunea erabiltzen hasi gara



t: Joanes Camara, gizarte-teknikaria

Gaur egun ezinbestekoa da gailu teknologikoen nola funtzionatzen duten jakitea, horiek erabiltzea eta teknologia berrien garrantzia ulertzea. Horren jakitun, PAI Bitartean zerbitzuan aspaldian ipini genituen martxan gure erabiltzaileentzako informatika-saioak eta sakelako telefonoa erabiltzen ikasteko saioak. Hor-taz, Emaús Gizarte Fundazioaren Bizkaiko zentroetan egiten diren asteko tailerretan leku berezia du teknologiak.

Derioko PAI Bitartean eguneko zentroa zabaldu genuenean, herriko KZgunea joateko aukera interesgarria ere izan genuen. Ondorioz, Derioko Udalarekin eta KZgunearekin lankidetzan gabiltzala, hilabete batzuk daramatzagu Kultur Birikara joaten, gure erabiltzaileen gaitasunetara eta beharrietara egokitutako pres-takuntza-saioak jasotzera.

Horrela, bi hilerik behin, eskola ematen digu Enekok. Irakasle trebea da, eta gure erabiltzaileak oso eroso sentitzen dira berarekin, hainbat tresna digital eza-gutzeko eta egunerokotasunean sortzen zaizkien zalantzak argitzeko. Hori dela eta, gizartetik kanpo dauden edo egote-ko arriskuan dauden pertsonen laguntza jasotzen dute teknologia berrietara egokitzeko prozesuan, eta, era berean, herri-aren parte sentitzen dira, udalerriko azpie-giturak eta baliabideak erabiltzen dituz-telako eta Eusko Jaurlaritzako proiektu batean, hau da, KZgunean, parte hartzen dutelako.

Esandakoa kontuan hartuta, zortzi lagunek osatutako taldea interes handiz joaten da KZgunean programatutako saioetara.



ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 – 639 58 25 47

ZAMUDIO
Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
loterias.zamudio@gmail.com

Ne-apaindegia

M^a Antonia Llodio TXIPI

Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Biri-belarra

t:@txiribita_mundi

Pulmonaria longifolia, officinalis... Oso landare iletsua da, zurtoin zutitua du, eta gutxi gorabehera 30 cm-ko altuera. Bere hosto lantzeolatuak orban zuri bereizgarriak dituzte kanpoko aldean. Oso ugaria da gure lurraldeetan eta topatu dezakegu leku umeletan, basoetan, malda ospeletan, bide-ertzetan eta larreetatik hurbil.

Noiz batu

Hostoak eta loreak erabiltzen dira. Landare hau neguaren amaieratik udaberrira arte batu daiteke, izan ere, udaberrian bertan loratzen da; hala ere, bilketa ekainera arte luzatu daiteke. Zurtoina, loreak eta hostoak dituela moztu behar dugu, eta sortetan zintzilikatu, sikatu daitezten.

Sukaldean

Hostoak jangarriak dira eta beste propietate batzuek gain muzilagoak antioxidatzaileak eta C bitamina dituzte. Antzina, hostoak barazki moduan erabiltzen ziren, gaur egun ohitura hori desagertu den arren. Egosita jan daitezke zopetan eta menestretan, edo gordinik entsaladetan; edozelan ere, muzilago-testura dutenez eta iletsuak direnez, ez dira gordinik jateko oso atsegingarriak.

Biri-belar purea (lau lagunentzat): tipula bat, sei porru, 150 g zerba, patata bat, 150 g biri-belar hosto eta bi azenario. Barazkiak garbituko ditugu, zatitu, eta oliba-oliotan 5-10 minutuan sueztituko ditugu. Gatza eta piperra botako dugu, barazkiak urez estali, eta 15 minutuan egosiko ditugu. Irabiatuko dugu, eta, nahi izanez gero, oliba-olio txorrotada bat eta haziak botako ditugu.

Propietate sendagarriak

Biri-belarra da emolientea, espektora-tzailea, izerdiarazlea, idorgarria eta hantura-contrakoa.

Barruko erabilera sendagarriak:

Lagungarria da arnasbideetako gaixotasunak arintzeko, hala nola katarroa, eztula eta bronkitisa. Bestalde, beherakoa eta digestio-ondoezak arintzeko erabili dezakegu, esaterako, urdaileko mina, hantura eta indigestioa.

Biri-belarra diuretiko da eta organismoari laguntzen dio gorputzean ditugun gehiegizko likidoa eta toxinak kanporatzen. Era berean, erabili dezakegu gurnu-aparatuko infekzioetarako, zistitiserako zein giltzurrunetako arazoetarako. Osasunerako onuragarria izateaz gainera, laguntzen digu zahartzearen kontra, izan ere, aberatsa da antioxidatzaileetan eta beste konposatu batzuetan, zeinek organismoa erradikal askeek sortzen dituzten kalteetatik babesten baitute.

Aurreko lerroetan aipatutako erabilera guztietarako, hosto- eta lore-infusioak hartu ditzakegu egunean hiruzpalau aldiz. Infusioa prestatzeko, ur litro bakoitzeko 20-30 g hosto eta lore beharko ditugu. Irakiten 15 minutu inguru izango dugu, eta bost minutuan, jalkitzen. Nahi izanez gero, biri-belarra beste landare hauekin nahastu dezakegu infusioa egiteko: apo-belarra, plantaina, eukaliptoia, intsusa eta malba.

Kanpoko erabilera sendagarriak:

Orbaintzailea eta hanturaren eta bakterioen kontrakoa denez, erabili dezakegu zauriak, hemorroideak eta larruazaleko gaixotasunak arintzeko. Hostoak egosi ondoren lortzen dugun likidoa erabili behar dugu, garbigarria izango balitz moduan. Hori prestatzeko, 250 ml uretan 30 g hosto

egosiko ditugu 15-20 minutuan. Hostoak uretan utziko ditugu beratzen, hoztu arte. Ostean, likidoa iragaziko dugu. Likidoa egunean bitan erabili dezakegu larruazala edo artatu beharreko guneak garbitzeko; likidoan bustitako zapiak erabili ditzakegu horretarako.

Hemorroideak izanez gero, gomendagarria da infusioa edatea, lagungarria baita barruko odoljarioak txikiagotzeko. Hori dela eta, hilekoa dugunean ere hartu dezakegu, odol-galera handiegia bada.



Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezten; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...

Umeeek bikotekide ohia eta biok berriro elkartzea nahi dute...

t: Ursula Tomas, psikologoa eta neuropsikologoa

Zalantzarik gabe, seme-alabak dituen bikotea banatzen denean, aurre egin behar dioten egoera konplexuenetako bat hau da: umeeek gurasoak berriro adiskidetzera nahi izatea, berriro lehen ziren familia izateko. Haurren zintzotasunak eta errugabetasunak sakon ukitu dezakete gure bihotza, baina, era berean, erronka emozional esanguratsuak ekarri ditzakete. Jarraian, egoerari modu sentikorrean eta eraikitzailean heltzeko iradokizun batzuk topatuko dituzue.

Komunikazio irekia. Gaiari gardentasunez eta enpatiaz heltzea funtsezkoa da. Umeeek ulertzeko moduko hizkera erabili behar dugu, haiei azaltzeko helduen arteko maitasuna aldatu daitekeela, baina seme-alabekiko maitasuna eta zaintza ez direla inoiz aldatuko. Halaber, garrantzitsua da umeei azaltzea, gurasoen arteko harreman erromantikoa amaitu den arren, biek dutela seme-alabei maitasuna eta babesa emateko konpromisoa.

Umeen sentimenduak aintzat hartzea. Hori, gainera, itxaropen faltsuak ekarri gabe egin behar da. Azaldu behar diegu ulertzen dugula gurasoak berriro elkarrekin egotea nahi dutela, baina helduen arteko harremanak konplexuak direla adierazi behar diegu, eta batzuetan ezinezkoa dela gurasoak berriro elkarrekin egotea. Horren ondorioz, triste edo nahastuta egotea ondo dagoela esan behar diegu, eta gurekin haien emozioak partekatu ditzaten animatu.

Arreta familiar ipintzea. Ezinbestekoa da familiaren garrantziaz hitz egitea, eta, na-

hiz eta haien artean harreman erromantikorik ez egon, azaltzea guraso biek ingurune egonkorra eta maitasunezkoa eskaintzen lagundu ahal dutela. Era berean, nabarmendu behar dugu guraso biek elkarrekin lan egin dezaketela, seme-alabak ahalik eta ondoen hazteko. Bestalde, hainbat familia-eredu daudela azaldu diezaiekegu, eta ondo erreparatuz gero, inguruan ikusiko ditugula: familian bertan, lagunene edo auzokideen artean, eskolan...

Laguntza profesionala. Familia-terapia eta haurtzaroen aditua den psikologo batengana jo daiteke orientazio bila, familiako kide guztiei emozioak ulertzen eta kudeatzen laguntzeko. Terapeuta batek tresna praktikoak emango dizkigu, familiako ki-

deen arteko komunikazioa hobetzeko eta aldaketara egokitzen laguntzeko.

Gogoratu behar dugu naturala dela haurrek familia-unitatea nahi izatea, baina funtsezkoa da haiei azaltzea maitasuna hainbat modutan agertu daitekeela, eta familiaren ongizatea lehenetsuta dela ulertzen laguntzea. Maitasunez, pazientziarekin eta komunikazio ona sustatuz, modu osungarrian eta positiboan gidatu ahalgo ditugu seme-alabak prozesuan.

Liburu lagungarri batzuk:

Familien liburu handia, Mary Hoffman eta Ros Asquin

Ni ez naiz seme hautsi bat, Mati Morata
Eta bat-batean izar bat, Pilar Pascual.



Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kiromasajea

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txorierri etorbidea, 9 - Lonja | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalzainduz.com | www.dentalzainduz.com

PsikoNeuro
TXORIERRI

Psikologia eta Neuropsikologia

Derioko Seminarioa, A eraikuntza 3. solairuan

611 172 488
psikoneurotxorierri@gmail.com
@psikoneuro_txorierri

RPS: 184/10

TIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Gabonak ederto batean pasatu ditugu Loiu Gurenan

Loiu Gurenan Gabon berezi eta politak bizi izan ditugu eta zuekin partekatu nahi ditugu. Gabonetan sentimenduak erraz agertzen zaizkigu guztioi, baina bereziki gure adinekoei, zeren eta gogora bizipen asko eta dagoeneko ondoan ez dituzten pertsonen oroitzapenak etortzen baitzaizkie. Hori jakin badakigu, eta horregatik Loiu Gurenan maitasun handiz zaintzen ditugu data hauek, eta hainbat ekintza antolatzen ahalegintzen gara egoiliarak entretenitze-ko eta une atseginak sortzeko.

Aurten, ohiko ekitaldiak egin ditugu, hala nola Gabon Zaharreko kotiloia, San Tomas jaia eta abesbatzen emanaldiak. Gabonetako postalak ere egin ditugu, eta inguruko ikastetxeekin trukatu ditugu. Horrez gainera, ekintza berriak antolatu ditugu Gabonetako egitarauaren baitan. Ekintza horien artean aipatzekoak dira Osaba Honorioen Txarangaren emanaldia, Martín Barcelona tenorraren Gabonetako kantaldia

eta euskal dantzak. Eta zalantza barik esan dezakegu guzti-guztietan bete-betea asmatu dugula!

Oso pozik gaude, gure nagusiek data hauen oso balantze positiboa egin baitute. Hala ere, ezin gara bertan gozo gelditu, Inauteriak ate joka daudelako eta mozorroak egiten hasi behar dugulako. Hurrengo aldizkarian kontaktuko dizuegu Inauteriak nola bizi izan ditugun eta emaitza ere erakutsiko dizuegu!



TALDEA  **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**

egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com



a: Pexels

Dilistak arroz integralarekin eta barazkiekin

Osagaiak (lau lagunentzat):

- Basokada bat dilista
- Basokada bat arroz integral
- Kalabazin bat
- Piper gorri bat
- Tipula bat
- Porru bat
- Piper berde bat
- 4 arrautza
- Piperrautsa
- Olioia

Prestatzeko era:

Dilistak egosiko ditugu, arroza eta arrautzak. Barazkiak Juliana eran ebakiko ditugu, eta olio berotan salteatuko ditugu; gatza eta piperra botako dizkigu. Ontzi batean dilistak, arroza eta barazkiak ipini, eta nahasiko ditugu. Plater bakoitzean errazio bat ipiniko dugu, eta errazio bakoitzaren gainean, arrautza bat txikituta. Piperrautsa botako dugu, eta olio-zurrutada bat.

Osagaiak

- Pakete bat arroz integrala
- Erremolatxa egosi bat
- 100 g olo-maluta
- 3 koilarakada sesamo-hazi
- Koilarakada bat baratxuri-hauts
- Koilarakada bat tipula-hauts
- 1/2 koilarakada oregano siku
- 1/2 koilarakada albahaka siku
- Gatza
- Piperbeltz
- Olioia

Prestatzeko era:

Olo-malutak eta sesamo-haziak txikitu-ko ditugu, irina lortu arte; gordeko dugu. Bestalde, edalontzi zabal batera botako ditugu arroza, erremolatxa, espeziak eta gatz apur bat. Dena irabiatuko dugu, harik eta nahasi homoginoa lortzen dugun arte; ontzi batera botako dugu. Irin apur bat gordeko dugu, gero hanburgesak irinez-tatzeko; gainerakoa ontzira gehituko dugu. Dena nahasiko dugu eta hozkailuan 15 minutuan izango dugu. Hanburgesak egin, eta olo-irinetik eta sesamo-hazietatik pasatuko ditugu; frijituko ditugu.

Erremolatxa-hanburgesa





a: Freepik

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.

a: freepik



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Hona Bostekoa!
(Dijitalidatea), Eñaut Aiertzagüena, Unai Gaztelumendi, Aritz Ibarra, Koteto eta Mattin.

–Musker amarruak
(Erein), Jon Arretxe.

–Juana (Elkar),
Jon Artano.



LITERATURA: GAZTEAK

–Zuhara buru-
hezurren itsasoan
(Alberdania), Amaia Telleria.

–Abereen etxaldea
(Txalaparta), Thomas Labourot.

–Txulotik (Denonartean-
Cenlit), 'Mattin' Iñaki Martiarena Otxotorena



Sudokua

2				6	7		
	9		1				4
1			4				9 5
		9			6		2
	6						5
		8		2			
	5 7		6				1
	1			7		8	

3	6	8	4	7	5	2	1	9
1	4	2	9	6	8	7	5	3
9	5	7	1	3	2	8	4	6
4	1	5	8	2	9	3	7	6
7	8	7	9	4	3	6	2	5
2	3	2	1	5	6	7	4	8
5	9	3	2	8	4	6	7	1
6	4	7	2	3	1	5	8	9
8	7	1	8	6	5	4	3	2

L. LEIZAOLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

OAKLAND
ENGLISH

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisoló 4, beheá B
48150 SONDIKA **634 410 470**
aузokidefincas@gmail.com

TABERNA GAZTEDI

Egüneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

Ikastaroak

Larrabetzu

- > Energia Berriztagarrien Komunitatea. Otsailaren 6an eta 20an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikuskizunak

Larrabetzu

- > Zinekluba: *Gure leihotik* dokumentala; ondoren, solasaldia Gupide elkartearen kideekin. Otsailaren 20an, 19:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Festak

Zamudio

- > Sasimartxo. Otsailaren 4an.

Larrabetzu

- > Agate Deuna. Otsailaren 4an.

- > Kanpomartxo. Otsailaren 11n, 11:00etan, plazan.



Beste batzuk

Lezama

- > Bingoa. Otsailaren 2an, 19:00etan, Gaztelekuan.

Larrabetzu

- > Gune biziak, Gym Berdearekin saioa familian. Otsailaren 7an, 16:30ean.
- > Umeentzako irakurketa-saioak. Otsailaren 22an, 16:15ean, Anguleri kultur etxean (aurretik izena eman behar da).

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz Berbetan: Xabier Mendigurenen *Oso latza izan da* lana. Otsailaren 15ean, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Musika

Larrabetzu

- > Domekak Hori Bain: Moxal. Otsailaren 18an, 18:30ean.



Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zenitro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak

GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO
Tel: 94 608 95 31



Konekta zaitez gurekin!



Parte hartu aikor.eus webgunean

Zure argazkiak eta albisteak bidali

 **E-posta:**
aikortxori@aikor.com

 **WhatsApp:**
688 86 41 35



AURRERA

IKUSKIZUNAK

www.aurrera.eus
aurrera@aurrera.eus
652 776 054
711 710 366



Edozein ekitaldiren anto-
latzailea; Umeentzako parkeak,
kontzertu txikiak eta handiak,
antzerkiak, herri askotako jaien
antolakuntza guztia..



Akerbeltz, Muxutruk, Luhartz,
Dj Markelin, Asier Burguete Shows,
The Bond Scott Band-en bulegoa



Megafonia txikiak, soinu
eta argi ekipo handiak,
zinema pantailak eta
led pantaila erraldoiak



Karpak, eszenatokiak,
tarimak, txosnak, jaimak,
komunak, kamioi eszenatokiak,
kamerinoak, aulki eta mahaiaik..

